

puntu a

IKERKUNTZA ETA BERRIKUNTZA HELBURU

BOST DEBAGOIENDARREN
LANBIDEAK ETA PROIEKTUAK,
GERTUTIK

Aritz Atxaga, talde lanean
sortutako leiho-garbitzailearekin.





PUNTUA | 044

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
IMANOL SORIANO

<p>—</p> <p>3 Nire txanda Pianoa</p> <p>—</p> <p>4 Bat-batean Agus Barandiaran</p> <p>—</p> <p>6 Irudiz Badator Olentzero</p> <p>—</p> <p>8 Mundutik Lanaren eta denboraren inguruan</p> <p>—</p> <p>10 Erreportajea Zertan dihardute?</p> <p>—</p> <p>16 Iritzia — Otso barkartia — Etxebizitza erosi ala alokatu?</p>	<p>—</p> <p>Joxe ta Piku</p> <p>—</p> <p>Eraldaketa digitala eta gure enpresa industrialak</p> <p>—</p> <p>18 Talaiatik <i>Iruña-Veleia sindromea</i></p> <p>—</p> <p>20 Elkarrizketa Mikel Lezamiz, Mondragon Taldeko Hedapen Kooperatiboaren arduraduna</p> <p>—</p> <p>24 BIZI</p> <p>—</p> <p>24 Osasuna Gabon osasuntsuak igaro</p> <p>—</p> <p>26 Kirola Gorputza bere osotasunean lantzen</p>	<p>—</p> <p>28 Adituen esanetan Aitak ere bagara, izan</p> <p>—</p> <p>30 Otorduan Mazapan eta turroi eskaintza zabala Mujika gozotegian</p> <p>—</p> <p>32 Moda Gabonetan itsutu gabe distira egiteko</p> <p>—</p> <p>34 Motorra Focus Kopan hirugarren</p> <p>—</p> <p>36 Gure artistak Bernat Alberdi</p> <p>—</p> <p>38 Kultura Toberako gezi berriak Eskoriatzara begira</p>	<p>—</p> <p>40 Liburu artean <i>Zu</i></p> <p>—</p> <p>41 Goienakideak</p> <p>—</p> <p>42 Gure altxorrak Aramaioko erlojua</p> <p>—</p> <p>44 Komunikazioa Slow Media</p> <p>—</p> <p>45 Gadgetmania</p> <p>—</p> <p>46 Handitzen, handitzen</p> <p>—</p> <p>46 Egin eta jan Gabonetako gailetak</p> <p>—</p> <p>47 Jaioberriak</p>		

puntua

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal
Zuzendaria Eneko Azkarate

Erredaktore burua Monika Belastegi
Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe
Euskara arduraduna Sergio Azkarate
Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga
Kluba eta banaketa Marta Leturia

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Munditiano, Ziertra Martin, Imanol Elortza
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOTZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
943-25 05 05 | Faxa: 943-25 05 00
berriak@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
943-25 05 05 | Faxa: 943-25 05 00
publi@goiena.eus

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943-25 05 05
harpidetza@goiena.eus
Lege Cordailuz: SS-1509-2014
ISSN: 2443-9738
Tirada: 4.100 ale

goiena | TOKIKOM



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundutako aldizkaria**



Gipuzkoako Foru Aldundia



Nagore Ipiña

Pianoa

Gizarte digitalaren inguruko liburu bat irakurtzen ari naiz. Mundu digitalarekin dugun harremana metaforen bidez laburbiltzen duena. Ez dut bukatu; zazpigarren metaforaren inguruko kapituluarekin hasi nintzen bert. Baina lehenengoaren inguruko bi hitz idatziko ditut gaurkoan.

Gose gara, baina momentutxo bat itxaron dezakegu, ezta?

Piano bat aurkezten du lehenengo metafora gisa. Imajinatu, pianoa jotzen ikasi nahi duzu eta lehenengo eguna duzu gaurkoa. Gelara sartu eta bertan duzu pianoa. Zer egingo zenuke lehenengo? Piano aurrean eseri? Eseri baino gehiago da;

pianoarekiko jarrera bat da. Ez da soilik ipurdia aulkiaren gainean jartzea, pianoaren parean jartzeak dakarren guztia baizik. Gizarte digitalaren ezaugarri diren teknologien aurrean, ordea, egiten al duzu horrelakorik?

Iruditzen zait ez diogula garrantzirik ematen une horri teknologien aurrean gaudenean. Gizarte digitalarekin dugun lehenengo hartu-emana da teknologiaren aurrean jartzea. Jarrera ahaztu eta gaitasunetan zentratzen gara zuzenean. Pauso bat jaten dugula deritzot. Gose gara, baina momentutxo bat itxaron dezakegu, ezta? Erabileran fokatu eta teknologien inguruan pentsatzeko tarterik ez dugu hartzen. Pianoaren aurrean, kontrara, denbora hori sakratua da. Zergatik ote? ■

Agus Barandiaran

Korrontzi taldearekin munduko txoko askotara zabaldu ditu bizkaitarrak trikiti doinuak; 'Korrontzi dantzan' da taldeak atera duen azken lana.

TESTUA: TXOMIN MADINA ARGAZKIA: IMANOL SORIANO

Helburu argia du diskoak: jendea dantzan jartzea. Eroso egoten zara trikitia eserita dagoen entzuleen aurrean jotzen? 13 urterekin hasi nintzen trikitia ikasten 80 urte zeuzkan Rufino Arrolarekin, haren tabernan, eta beti esaten zidan trikitia jendea pozik, dantzan jartzeko instrumentua zela. Batean edo bestean jo, horretan saiatu naiz beti.

Eta entzuleak animatzen ez direnean? Hor izaten ditugu lanak! Euskal Herrian edo gaztelera hitz egiten den lekuetan, hitzekin saiatzen naiz jendea animatzen; zailagoa izaten da Cabo Verden edo Errumanian jotzean. Ez naiz pozik joaten etxera jendeak dantzarik eragin ez badu, izan euskal dantzak, edo izan norberak nahi duena.

CD-DVDak jasotzen dituen dantzak ez dira edonork sortutakoak, dantzari entzutetsuek baizik. Garrantzitsua da bidelagun onak izatea? Bai. Garai ezberdinetako koreografiak dira, euskal dantzen inguruan dabilzan izen ezagunek gure musika oinarri hartuta landutakoak. Konturatu ginen dantza horietako batzuk agertokian bakarrik geratzen zirela, inon jaso gabe. Horixe lortu gura genuen: denak bildu eta jendeari eskura ematea.

Tradizioan berritatzeko orduan, non dago muga? Nik ez nuke mugarik jarriko, hori entzuleek egin behar dute. Guk gure aurrekoengandik jaso genuen tradizioa, baina haiek ere tradizioaren euren bertsioa zuten: azkenean, belaunaldi bakoitzak bere bertsioak ditu, tradizioa garai berrietara egokitzen da eta. Nik ez du tradiziorik aldatu gura izan, proposamen berriak egin baizik, musika tradizionalari arropa berria jarri.

Ohiko bidearen kontrakoa egin duzue: kanpoan ezagun egin, gero etxean ezagunak izateko. Halakoak ditu bizitzak. 2004an hasi ginen, eta, jendeak trikitia erromerierekin edo kalejirekin lotzen zuelako, kontzertu gutxi izaten genituen. Kanpoko jaialdietatik deitzen hasi ziren, eta horrelakoetan jotzen hasi ginen. Sariak ere irabazi genituen; tartean, 2008an, Eurofolk txapelketako sari nagusia. Atzerrian kontzertu mordoa emateak hemengoan arreta piztu zuen, eta orain kanpoan eta etxean sentitzen gara maitatuak.

Munduko hainbat txokotan jo duzue; non izan dute harrera beroena trikiti doinuek? Zaila da esatea. %95ek oso bero hartzen gaituzte: kontzertua hasteaz bat, jendea dantzan hasten da, bai Brasilen, bai Zipren. Guk, gainera, euskaraz abesten dugu. Bremenen, irratis ematen ari ziren kontzertu baten jo genuenean, azalpenak ingelesez ematen hasi nintzen. Antolatzaileetako batek esan zidan euskaraz hitz egiteko, akaso entzuleek ez zutelako berriz ere euskararik entzungo, hizkuntzaren soinuaz gozatu gura zutela.

Rockarekin eta poparekin ere izan duzu harremanik, Urgabe taldearekin. Hamar urtetan ibili ginen, eta lau disko kaleratu genituen. Hasieran, erromeria talde moduan hasi ginen; eta gero eman genuen rockerako saltoa. Eskolarik onena izan zen niretzat: agertokian nola egon, kontzertuetan ze jarrera izan, ze musika egin... Ikasteko balio izan zidan.

50 trikiti dituzu. Non gordeta? Egia esan, 60 inguru izango dira... Etxean gordetzen ditut, leku barik geratzen nabilen arren. Batzuk jotzeko erosten ditut, baina beste batzuk, gordetzeko. Trikitia akordeoi diatonikoen familiakoa da, eta bidaietan horrelakoak aurkitzen badituz, erosi egiten ditut; baita zahartuta edo hondatuta dauden trikitiak ere.

Bihar dator Olentzero. Zein da ekarri dizun oparirik kuttunena? Azken bi urteotan ama eta aita galdu ditut, eta, hala, umetan oparitutako jostailuak oso kuttunak ditut; batzuk, gainera, kutxa baten gordeta dauzkat. Ez da diru kontua, emozio kontua baizik. ■







Badator Olentzero

ARGAZKIA: EKAITZ FILARMENDI

TESTUA: MONIKA BELASTEGI

Ez da Olentzero, baina bai haren laguntzailea. Jose Manuel Etxarte *Trumoia* da, txondorgilea zazpi urte zituela aitarekin basora irteten hasi zenetik. Aurten ere, hutsik egin gabe, berak egin du, beste hiru ikazkinekin batera, Arditurriko txondorra (Oiartzun). Azaroaren 21ean piztu zuten: lehendabizi, brasa bota zuten tximiniatik, gero egur txikiak, eta berehala piztu zen txondorra. Hilabetez egon da piztuta eta aurreko zapatuan atera zuten ikatza egosita. Dagoeneko ogi-zakutan sartuta daukate, prest Olentzerok hartu eta etxerik etxe banatzeko.

Lanaren eta denboraren inguruan

MUNDUTIK



Txemi Etxebarria

Maastricht
(Herbehereak) bizi den
arrasatearra

Orain dela aste batzuk eskola batetik deitu zidaten ordezkapen bat egiteko. Bertan lanean zegoen 55 urteko langileak baja eskatu zuen, estres kontuak direla eta. Baliteke lanak bakarrik estresa sortu ez izana, familia inguruko arazoak edo beste hainbat kontu ere izan daitezke arrazoiak. Baina niri asko pentsarazi zidan kasu honek. Izan ere, adin horrekin eta lan berean urteak eta urteak aritu ondoren, estres arazo batengatik gaixotzea susmagarria iruditzen zait. Ez da, ba, logikoagoa pentsatzea urteak pasa ahala gure lana gero eta gehiago menderatzen dugula edota lanaren eta plazeraren arteko muga errazago bilatzen jakingo dugula?

Badakit friboloa izan daitekeela gai hauen inguruan mintzatzea, gehienbat, lana aurkitu nahian dabilenarentzat. Nire asmoa ez da lan gutxiago egitearen aldeko apologia bat egitea. Baina bai gai honen inguruan gure buru barruan argitxo gorri bat pitzaraztea eta gure gizartearen hazkunde ekonomikoaren inguruko ideia inguruan hausnarketa txiki bat egitea.

Duela gutxi Serge

Latoucheren artikulu bat irakurri nuen. Ekonomista



eta filosofo honek dio zoriontasuna eta barne-produktu gordina aurkako terminoak direla. Hau da, ez gara zoriontsuagoak izango baldin eta gehiago ekoizten badugu. Eta gehiago ekoizteko lan gehiago egitea okerreko bidea hartzea da.

Latoucheren ustez, lanorduak zorrozki murriztu behar dira. Jende gehiegi dago lan gabe, eta jende asko gehiago lan egiten gutxiago irabazteko. Batek lan gehiago egiten badu, eskaintza handitzen da, baina aldi berean eskaera handitu ez denez eskaintza-eskaera



ARGAZKIAK: [HTTP://WWW.TRAVELSWITHANAPPYBAG.CO.UK/](http://www.travelswithanappybag.co.uk/)

legeak porrot egiten du. Hau da, lan gehiago egin arren diru gutxiago irabazten da.

Lanorduak gutxitu eta ordu horiek maitasuna, adiskidetasuna edo ezagutza bezalako arlo batzuetan inbertitu; hor dago gakoa gizarte osasuntsuago baterako. Herrialde zorionsuenetan ez da auto gehiago ekoizten, dio berak, bizipoza baizik.

Bere ustetan, mundu guztiak nahi du gizartea ez hain basatia izatea, baina ez daukagu adorerik aldaketa hau gauzatzeko. Beldur honen atzean *infernuko*

triada deitzen duena dago: publizitatea, bankuak eta zaharkitzapen programatua.

Datuen arabera, holandarrak dira European asteko lanordu gutxien egiten dituztenak. 30 eta 33 ordu artean. Hau azaltzeko bi arrazoi daude: alde batetik, lanaldi erdiko kontratuak ugariak dira. Lan gehienetan dago aukera egun batez gutxienez lanordu erdia egiteko. Bestetik, emakumeen parte-hartzea handia da lan munduan. Modu horretan ordu gehiago geratzen dira libre familia, lagun edo beste kontu batzuetarako. Adibidez, hemengo umeek asteazkenetan

☑ Umeek eguaztenetan 12:00etan bukatzen dute eskola eta guraso askok ere jardun erdia egiten dute.

eguerdiko hamabietan bukatzen dute eskolan. Eta guraso askok egun horren erdia libre hartzen dute.

Zer gertatzen da? Lanordu gutxiago egin arren, jende gehiagok egiten duela lan. Eta, gainera, era produktiboagoan.

Espanian, batez beste, 40 ordu egiten dira lan astean. Hala ere, desberdintasun handiak egon daitezke erkidegoaren arabera. Adibidez, Euskadin batez bestekoa 33 ordukoa da eta Asturiasen 40 ordu baino zertxobait gehiagokoa.

Nire ustez, gakoa da zer egin ordu edo denbora *libre* horrekin. Uruguaiako presidente izandako Jose Mujikak zioen bezala, bizitzeko askatasuna behar da. Aske izateko denbora behar da. Eta denbora izateko bizimodu soil bat behar da. Horrela lortzen da denbora. Zerbait erosten ari garenean ez dugu diruarekin ordaintzen, diru hori lortzeko erabili dugun denborarekin baizik.

Jakin nahi duzue zer egin nuen, azkenean, hasieran aipatutako lan eskaintza harekin? Ba, eskaintzako lanorduen erdia baino gutxiago hartu nituen, eta lortu dudan denbora librean, gaur, adibidez, artikulu hau idatzi dut. ■

Zertan dihardute?

Ikerkuntzan, berrikuntzan eta garapenean aritzen direnendako garai zailak dira, baina bost debagoiendar euren ibilbidea egiten ari dira. Zer ari dira garatzen edo ikertzen zehatz-mehatz? Zertan ari dira lanean? Zeintzuk dira euren proiektuak?

TESTUA: JOSU BILBAO ARGAZKIAK: JOSU BILBAO, ANTON PEÑA, IKER BADIOLA ETA MIKEL CATANIA

E


uren esparruetan lan eta lan ari dira Iker Badiola biologoa, Aritz Atxaga MPEG-ko ikaslea, Antton Peña industria diseinatzailea, Miren Zubeldia matematikan doktorea eta Mikel Catania aeronautikako ingeniaria. Nor bere proiektu, lanbide edo ikerketan buru-belarri murgilduta dabil.

Izan ere, Debagoienean talentua, ideia berri-tzaileak eta ikerkuntzan aritzeko gogoia badaudela ondo erakusten dute herritar hauek. Aritz Atxaga eskoriatzarrak, adibidez, leihoak garbitu ditzakeen robot bat sortu du, beste lau kiderekin batera. Mikel Catania aretxabaletarrak bi urte daramatza Europako Espazio Agentzian lan egiten, eta Miren Zubeldia oñatiarra Basque Center for Applied Mathematics zentroan ari da, matematikari. Iker Badiola Bergarako biologoa metastasiak giblean eragiten dituen aldaketak ikertzen ari da, eta Antton Peña aramaioarra Londresen

droneen garapenarekin eta *on line* bidez egingo diren testamentuekin zerikusia duten bi enpresa ezberdinetan ari da lanean.

EZ DIRA GARAI ONENAK Krisiaren ondorioz, ikerkuntza, garapena eta berrikuntza arloak ez dira garai onak bizitzen ari, eta, horren ondorioz, askok eta askok atzerrira joan behar izan dute euren proiektuak aurrera eraman ahal izateko. Beste herrialde batzuetan aukera gehiago aurkitzen dituzte, eta sarritan bertan bizitzen gelditu behar izaten dute.

Hala ere, debagoiendar hauek ez dute etsi eta euren arloetan jo eta ke jarraitu dute. Ikerkuntza, asmakizunak, robotak, berrikuntza, sateliteak... Zehatz-mehatz, debagoiendar hauek gaur egun zertan diharduten, euren lanbidea zein den, edota euren etorkizuneko proiektuak zeintzuk diren jakin gura izan du PUNTUAK. ■



IKER BADIOLA
BIOLOGOA

“Metastasiari gibelak nola laguntzen dion ikertzen gabiltza”

Irakasle izateaz gain (EHU), ikertzailea ere bada Iker Badiola, Bergaran bizi den ondarrutarra. Ikertzaile moduan oso gauza puntuala ikertzen ari da minbiziaren barnean:

“Kolonekoa, minbizien artean gehientsuen izaten dena, aztertzen, sortzen duen metastasia gehienetan gibelerara joatean da. Gu hori ikertzen ari gara. Nola? Ikertu beharrean minbizia bera, ikusi dugu minbiziak metastasia sortzen duenean beste organo baten, metastasi hori jasotzen duen organoak ere lagundu egiten diola minbiziari. Orduan, nahi dugu ikusi gibelak nola laguntzen duen metastasi hori jasotzen, ezartzen, eta gure estrategia terapeutikoa gibela


moteldu eta metastasiari aurre egiten zailtzea izango litzateke. Zer aldakuntza dituen gibelak metastasia sortzen duenean eta nola laguntzen dion metastasiari”.

Larria, metastasia sortzea dela azaldu du Badiolak: “Tumore primarioak, gaur egun, ez du hainbesteko larritasunik. Larria metastasia sortzea da. Hasierako tokian kentzeko ahalegina egin denean, gaixotasuna osatzea lortzen da kasu askotan. Zein da arazoa? Gorputzeko beste atal batera joaten denean, oso agresiboa izaten dela, tokiz aldatzeko gaitasuna izan badu oso gogorra delako. Eta horrek heriotza ekartzen du. Berez, metastasiarendako tratamendu

oso gutxi daude. Gaur egun erabiltzen direnak tumore primarioetarako erabiltzen diren antzerakoak dira, eta ez dira eraginkorrak”.

Testuliburu bat euskaraz

Giza Histologia Orokorra testuliburua kaleratu du aurten Badiolak: “Euskarazko testulibururik ez zegoen histologiaren inguruan, eta proiektua aurkeztu nuen lankide batekin batera. Irabazi genuen, eta, horren ondorioz, UEUK eta EHUko argitalpen zerbitzuek lagunduta liburua kaleratu dugu. Euskarazko ikasleek testuliburua izan dezaten, orain arte erabiltzen direnak erdarazkoak izan dira eta. Batez ere, terminologia landu dugu asko”.



ANTTON PEÑA
DISEINATZAILE INDUSTRIALA

“Ondasun digitalak testamentuari gehitzeko lanean ari gara”

Londresen bizi da Antton Peña aramaioarra, eta bi enpresa ezberdinetan ari da lanean. Arrasaten Diseinu Industriala ikasi zuen, eta Londresen Global Innovation Designer masterra bukatu zuen: “Bi lanetan nabil buru-belarri, denbora edozein tokitatik atera guran. [Barre] Alde batetik, garatzen gabiltza sarean plataforma bat, bizitzaren amaieran hartu ahal dituzun erabaki horiek guztiak kudeatuko dituen. Testamentu normal bat egiten dugu, baina horri, bakoitzaren ondasun digital guztiak ere gehitzen dizkiogu. Oraindik ez daukagu produkturik, baina urtarilaren erdialderako lehenengoa ateratzea espero dugu.

Oraingoz, Erresuma Batuan bakarrik izango da baliagarria, baina poliki-poliki beste toki batzuetara heltzen joango gara”.

Antton Peñak testamentu digitalaren gaiak interesa sortu duela azpimarratu du: “Oso interesgarria da nolako jarrera aldaketa bizitzen hasi garen, batez ere, gure ondasun gehienak mundu digitalera igaro direnetik. Adibidez, Twitterren ondo kokatuta dagoen pertsona bat. Pertsona horrek bere bizitza, seguru aski, profila horren inguruan muntatu du, eta horrek sekulako balio ekonomikoa du. Edota iTunesen hainbat gauza erosi dituen pertsona bat. Zer gertatzen da horrekin? Gaur egun ez dagoela

estruturatu bat hori guztia inguratuko duenik eta mundu hau utziko dugunerako modu baten edo beste baten lotuta utziko duenik. Horretan ari gara lanean, beraz”.

Droneekin ere lanean

“Algoritmo bat garatzen gabiltza droneak modu prosozial baten gidatzeko. Prosoziala esaten dugunean, helburua da drone batek pertsona batek eduki ditzakeen zalantza edo beldurrak ulertu ahal izatea eta hori errespetatuz erantzutea. Azkenean, helburua izango litzateke: nahiz eta guk drone pila bat eduki gure inguruan bueltaka, guk sekula eurak ez ikustea. Drone hauek ikusezin egitea”, azaldu du Antton Peñak.

“Leiho-garbitzailea sortzeko nahiko lan egin dugu”

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan, Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko bigarren mailan ari da Aritz Atxaga eskoriatzarra. Iaz, beste lau kiderekin batera robot berezi bat diseinatu, fabrikatu eta muntatu zuten: “Leiho-garbitzaile bat da. Pasa den ikasturtean proiektu bat egitea proposatu ziguten, eta emaitza nahiko ona izan da. Oso pozik gelditu gara. Izan ere, nahiko lan egin dugu hau sortzeko. Bost hilabeteko proiektu bat izan da, talde lanean egina, eta, egia esateko, oso ondo irten da”.

Gailua ez dago bukatuta, eta ehuneko ehuneko ibiltzeko detaile batzuk bakarrik falta

zaizkio: “Robota bertikalki jartzen da leihoan, eta, zilindro baten bidez, airezko presioarekin, gorantz joan daiteke. Alboetan dituen beste zilindroek azalerari heltzen laguntzen diote. Oraingoan, ezaugarriak bukatuta du, eta detaile batzuk jarrita leihoak garbitzeko gai izango litzateke”.


Robotikako irakasleak ere ez zuen espero proiektua bere helmugara heltzea, eta, azkenean, ezustekoa izan da guztientzat. “Helburua ea egiteko gai ginen, gure trebezia probatzea izan da”, azaldu du Aritz Atxagak.

Proiektu berria

Bigarren ikasturteko proiektua beste robot bat diseinatzea eta

fabrikatzea izango da. Oraingoan, robot horrekin lehiatu beharko dute Eindhovengo First Tech Challenge proban: “Oraindik xasisa bakarrik dugu muntatuta, baina martxorako dena bukatuta edukitzea espero dugu. Urtariletik aurrera hasiko gara buru-belarri muntatzen, eta, oraingoan, taldean ere oso ondo ari gara lanean”.

Pista berezi baten hainbat gauza egin beharko ditu robotak: “Joko baten parte hartu beharko du gure robotak, eta beste herrialde batzuetako robot batzuen aurka arituko gara lehian. Pista berean lau robot ibiliko dira, eta irabazten saiatu beharko dugu”, adierazi du eskoriatzarrak.





MIREN ZUBELDIA
MATEMATIKARIA

“Gure lana pentsatzea da, eta batzuetan frustragarria da”

Matematikan doktorea da Miren Zubeldia oñatiarra, eta formula eta ekuazio artean eroso mugitzen da. “2015eko urtarrila ezker, Eusko Jaurlaritzako doktoratu osteko beka bati esker, Bilboko BCAMn (Basque Center for Applied Mathematics) zentroan ari naiz lanean. Momentu honetan daukadan beka 3 urterako da; beka honen baldintzen artean, lehen bi urteak atzerriko unibertsitate edo ikerketa zentro batean lan egitea da eta azkenengo urtean Euskal Herrira bueltatzea. 2015eko urtarriletik abuztura Helsinkin egon naiz. Urritik ia abendura arte, Ameriketako Estatu Batuetan, Clevelanden, eta

Milanen ere beste bi aste igaro ditut”, azaldu du matematikari oñatiarrak.

“Fisikatik datozen ekuazioak aztertzen ibili naiz. Lengoia matematikoa erabilia ekuazio horiek soluzioa duten aztertzen. Ea ebazpen hori existitzen den, eta soluzio horren portaera zein den. Gehienbat, uhinen propagazioarekin zerikusia dutenak. Adibidez, uhin batek azalera ezberdinetatik nola bidaiatzen duen, nola zabaltzen den, ea bueltatzen den... Nik oso matematika teoriko eta abstraktua egiten dut, baina orain apur bat hasi gara aplikatzen matematika hau medikuntzan eta geofisikan, batez ere”, azpimarratu du Miren Zubeldiak.

Lan berezia eta ezberdina

Matematikarien lana sarritan frustragarria ere badela onartu du Zubeldiak: “Egia esateko, askotan esaten dudan moduan, gure lana pentsatzea da. Arbel bat papera eta boligrafo bat bakarrik behar ditugu. Cambridgen egon nintzenean, adibidez, toki guztietan zeuden arbelak, eta jendea bere ideiak idazten ibiltzen zen edonon. Azken finean, ezin duzu ordutegirik eduki. Ez da 8 orduko lan-jardun bat. Gure lana pentsatzea da, eta batzuetan inspiratuta zaude eta beste batzuetan ez. Momentu askotan oso frustragarria da. Hilabeteak gauza baten inguruan pentsatzen eman ahal dituzu, eta agian ez duzu ezer lortzen”.

“Sentinel-1 satelitearekin dut harreman handien”

Europako Espazio Agentziarendako (ESA) egiten du lan Mikel Catania aretxabaletarrak, Alemaniako Darmstadt hirian dagoen kontrol zentroan. Bertatik ESAko misio guztiak kontrolatzen dituzte. Batez ere, orbitak jarraitzen dituzte, eta sateliteek jarraitu behar dituzten orbita horiek zuzentzen edo kontrolatzen saiatzen dira. “Nik Flight Dynamics dibisioan egiten dut lan. Guk kalkulu guztiak egiten ditugu, sateliteek izan behar duten orbita zuzen jarraitu dezaten, euren behar duten orientazioarekin. Horrela, misioak dituen beharren arabera maniobrak kalkulatu eta bidaltzen ditugu”, azaldu du Mikel Cataniak.

“ESAn, misio oso ezberdinak ditugu. Lurraren inguruan dabiltzan sateliteak, alde batetik, eta Marten daudenak, bestetik; Mars Express modukoak, adibidez. Rosetta misio ospetsua ere Europako Espazio Agentziak bideratu zuen. Misio hori oso garrantzitsua izan da guretako, ESAREN lana ezagutzera eman zuelako izan zuen oihartzunarekin. Rosetta misioaren aurretik espazioaz hitz egiten zenean, NASA pentsatzen zuen jendeak zela agentzia bakarra edo garrantzitsuena. Misio honekin, jendea Europa espazioan dagoela konturatu da, eta gauza garrantzitsuak egiten, gainera”, azpimarratu du Cataniak.

Lurraren inguruan

Aretxabaletako ingeniariak lurraren inguruan dabiltzan satelite ezberdinak kontrolatzen ditu, batez ere: “Nik kontrolatzen edo maneiatzen ditudan sateliteak Lurraren inguruan ibiltzen dira eta gure planeta aztertzen dute. Horrela, gauza ezberdin asko egiten dituzte, eremu magnetikoa eta grabitatorioa aztertzen dute edo planetaren irudiak ateratzen dituzte, adibidez. Nik, harreman handien Sentinel-1 satelitearekin daukat”.

Mikel Cataniak Ingeniaritza Aeronautikoa ikasi zuen Madrilan, eta dagoeneko hiru urte eta erdi daramatza Alemanian, Europako Espazio Agentzian lan egiten.





Martin Jauregialtzo

Otso bakartia

Sinboloa eta otsoa, ibilbide luzeko harremana. Ovidio olerkaria, Perrault-en ipuina, Rousseau-ren ikuspegi filosofikoa edo Hermann Hess-en otso esteparioa, denetan azaltzen zaigu otsoa giza konplexutasunaren metafora gisa.

Botereak, eta beraien mezua zabaltzeko beldurraren metafisika erabili duten guztiek, hor izan dute beti, eskura, otsoaren irudia.

Mendeetan zehar, gau ilun eta euritsuetan, otsoaren hatsak Europako pentsamendu sinbolikoa egituratu du.

Bazirudien teknologiararen gizarteak ikur honen desagerpena ekarriko zuela, baina gure beldur atabikoak hor dihardu tinko. Mende nahasi honen hasieran, ideologiaren anabasen eskutik,

BELDURRAREN METAFISIKA ERABILI DUTENEK HOR IZAN DUTE BETI, ESKURA

inoiz baino arriskutsu, zitalago, datorkigu otsoa, kasu honetan otso bakartiaren izenpean.

Hau da artalde baketsu honetan bizi den jihadistista, prest, edozein unetan bildots larrua kendu eta sarraskia eragiteko.

Otsoak ez du horrelakorik merezi. Nik otsoak maite ditut, betidanik ehiztarietatik ihes egin dut eta txano gorria daramaten gazte lirainek mesfidantza sortu didate. Duela 15.000 urte, otsoek aukeratu behar izan zuten, txakurren bidea hartu eta gizonen eta emakumeen katepean bizi edo aske jarraitu, baina betiko madarikatuak.

Nork bere aukeraketa egin zuen, guk ere gureak egiten ditugun bezala, eta nik, gau ilunetan, kateak nire lepoa estutu eta otso askearen ulua entzuten dudanean, bizitza honetan hartutako erabaki guztiak kolokan jartzen ditut. ■

EZTABAIDA

Etxebizitza, erosi ala alokatu?

Zein da aukera egokiena,
zure ustez?

Jon
Lopez

Gazteria teknikaria

Orokorrean hartuta, erosteko zein alokatzeko prezioak logikoak balira, alokairuaren alde egingo nuke, zalantza barik. Alokairuak askoz ere aukera gehiago ematen dituela uste dut. Egun merkatua dagoen bezala, ordea, bata zein bestea zail ikusten ditut. Erakunde publikoek alokairua sustatzeko eta errotuta dagoen espekulazioa ekiditeko ahalegin serioagoa egin beharko lukete.

Oihana
Astigarraga
Alokairuan

Badirudi erostearen moda alde batera utzi dugula eta alokatzea dela egokiena gaur egun. Urteak dira Europan alokairuan bizitzeari eman ziotela, eta, hemen jabetza horrenbeste gustatzen zaigun arren, ekonomia egoerak imitazioa bultzatu gaitu. Etorkizuna horren ezegonkorra den garai honetan, alokairua hautatuko nuke kokapen lotura eta prezio inflazioa ekiditeko.

Iñaki San Miguel



Zigor Aginagalde
Etxe agentziakoa

Momentu honetan, erostearen alde. Gaur egun, Arrasaten, behintzat, nire ustez aukerak interesgarriak dira. Prezioaz ari naiz, noski. Asko jaitsi da etxebizitzaren salneurria azken urteotan. Une honetan, ez dut esango asko igoko direnik, baina gehiago ez dira jaitsiko; orduan, gorantz joango direla uste dudanez, nik uste dut erosteko aukera onak daudela orain, lehenbailehen.



Nerea Agirre
Gaztea

Momentu honetan alokairuaren alde egingo nuke, ekonomikoki aukera hobea delako. Gaur egun gazteok ezin dugu hipoteka bat ordaindu, diru gehiegi baita. Hala ere, uste dut gaur egun ez dela adin kontua soilik; izan ere, egonkortasuna izan arren, une batetik bestera kolokan jar daiteke, beldur hori hor dago. Hala ere, etorkizunean etxe baten inbertitzea merezi duela uste dut.



Lander Beloki

Eraldaketa digitala eta gure enpresa industrialak

Digitalizazioa aurrera doa. Derrigorrezko tresna bilakatu da Internet, eta enpresan izugarritzko iraultza ari da gertatzen. Madrilen egin den *Management & Business Summit 2015* ekitaldian, enpresek digitalizatorako kontuan eduki beharreko hainbat gako garrantzitsu aipatu ziren:

-Mugikorra, erosketa eta negozioetarako gailu nagusia.

-Markaren kudeaketa, negozioaren garapenerako derrigorrezkoa.

-Datuak, *big data*, datuen kudeaketaren bitartez aukera berriak negozioak sortzeko: petrolio berria.

Eraldaketa digitala gidatzen duena estrategia da. Komunikazioen sektorean negozioa ez dago mugikorra bera ekoizten, datuen erabilpenean baizik (Google). Gure inguruko enpresak, bereziki enpresa industrialak, ari al dira eraldaketa digitalari aurre egiteko estrategia berriak martxan jartzen? ▣



Juan Martin Elexpuru

Idazlea

‘Iruña-Veleia sindromea’

Ia zazpi urte egin ditu Ertzaintzak kasua ikertzen. Bere txostenean aitortzen du ez dakiela nor den ustezko faltsutzearen egilea –Lurmenen *núcleo duro* omen–; eta ezta non egin zen –agian, aztarnategian bertan gauez edo oporretan, edota tailer edo etxe partikular batean–; zein tresnarekin –“no se ha podido determinar la herramienta”–; edo zein izan den eragilea, mobila –“aparente falta de motividad [...]”, lo más verosímil es que los autores buscaran fama o dinero”–. Nola aurkituko zuten ba ezer, grafitoak benetakoak badira? Hala ere, “La más grave falsificación de la historia de la arqueología mundial” da, Ertzaintzaren hitzetan.

Horrela definitu du Van den Driessche geokimikariak *Veleia sindromea*: erabakia aspaldi hartuta dago: grafitoak faltsuak dira; eta txosten eta ikerketa ofizial guztiek frogatu behar dute faltsutasun hori. Eta frogarik ez badago, asmatu egiten dira. Eta egileari buruz arrastorik ez badago, erruduna seinlatu –Eliseo Gil, kasu honetan– eta hedabideetan txiki-txiki egiten da. Egia bilatzeak ez du interesik. Hobeto esanda, arriskutsua da. Utikan arkeometrian espezializatutako laborategiak eta kata kontrolatuak.

Hogei txosten egin dituzte bederatzi herrialdeetako ikerleek benetakotasunaren alde, baina bost axola. Aldundiak grafologo bat hartu zuen 2009an Gil inkrinatzeko. Haren txostena ez zitzaien gustatu eta beste bat kontratatu zuen, eta honek ziurtatu zuen Eliseok egin zituela grafito guztiak. Oso arrazoi indartsuak zituen: 36.000 euro poltsikora. Orain Ertzaintzak berak aitortu du lehendik bagenekiena: grafologiak ez duela deus balio auzi honetan. Gilen aurka zegoen *froga* bakarra erori egin da.

Honela ere titula zitekeen artikulu hau: *Grafitoen faltsutasuna Pirinioetan erabaki zen*.

Harrigarria, ezta? Zera esan zuen EHUKo Gorrochateguik euskarazko grafitoen aurkezpen ofizialean, 2006an: “Y nuestro objetivo principal era hoy precisamente asegurar a esa comunidad científica *que es verdad, que no es un fraude*, que han aparecido unas leyendas escritas en alfabeto latino [...] con leyendas en vasco antiguo”.

Eta zera idatzi zion Gorrochateguik berak Arkeologia Museoko zuzendariari lau egun geroago: “Estimada Amelia: [...] Tras conceder dos entrevistas la mañana del viernes, me voy a los Pirineos. [...] Y la conclusión de lo pensado estos dos últimos días con los datos que guardaba en mi memoria es que *no se sostiene en absoluto que los textos en euskera sean antiguos*”.

Zer gertatu zen bi egun horietan horrelako ziaboga bat egiteko? Berari galdetu beharko zaio. Kontua da, gure ustez, behintzat, orduantxe erabaki zela auzia. Gerora, goikoen ekimen guztiak erabaki hura betetzera zuzendu dira. *Veleia sindromea* martxan zegoen.

Laster hasiko ziren Interneteko foroetan intoxikazioak, filtrazioak eta mozorro dantzak; *Satorrotas* eta *Tatxi Piruli* izango dira protagonista nagusiak. Ondo informatuta daude.

Espainiako historiagrafiaren dogma sakratu bat arriskuan dago

Mugimendu indartsu bat sortu behar da herritarron aldetik

Grafitoen edukiak ezagutzen dituzte. Isiltasun hitzarmena hausten dute. *Euskalduntze berantiarra*-ren defendatzaileak ere urduri daude. Espainiako historiagrafiaren dogma sakratu bat arriskuan dago. Interes eta pentsaera ezberdineko pertsonak bat egiten dute Iruña-Veleiako aurkikuntzak lurperatzeko.

Filologoek agintzen duten batzordea, grafologoak, epaitegia, Ertzaintza... denak elkar hartuta. Gure politikari, hedabide eta intelektual gehientsuen laguntza edo pasibotasuna ziurtaturik dute. Horrela helduko gara 2016ra.

Ni neu, beste asko bezalaxe, konbentziturata nago irabazitako gerra baten aurrean gaudela. Grafitoak benetakoak direlako, gehiago agertuko direlako ondo induskatzen bada, analisiak egiten badira zaharrak direla ikusiko delako... Baina mugimendu indartsu bat sortzen ez bada herritarron aldetik, agian belaunaldiak igaro beharko dira auzia argitu arte. ■



B

aikor da Mikel Lezamiz (Busturia, 1953). Erretiroa hartzeko puntuan, argi dauka eredu kooperatiboak etorkizun handia duela. Uste du une zailetatik ikasi egin behar dela, eta mende hau kooperazioarena eta kooperatibismoarena izango dela.

Badator laneko erretiroa hartzeko ordua.

Asko aldatuko da zure egunerokoa?

Nire erabakia da erretiro aurreratua hartzea, eta badut gogoia, baina kooperatibismoari laguntzeko jarraitzeko asmoa dut. Uste dut erretiroa hartu ostean ere erantzukizun sozial bat dugula. Ez da soilik gaztaroko kontua. Horregatik, nahiko nuke ahal dudan bitartean erantzukizun sozial hori betetzen jarraitu. Aspalditik naiz Mundukideko eta Arizmendiarieta Lagun Elkarteko bazkidea, eta laguntzeko denbora luzeagoa izango dut aurrerantzean. Mesedeak ere zor ditut, eta asko! [Barre] Euskararen inguruan ere saiaturko naiz gehiago laguntzen. AEDko bazkide naiz eta Goiena ere proiektu oso interesgarria iruditzen zait. Gertu jarraituko dut.

Balio kooperatiboen hedapena izan da azken urteotan zure ardura nagusia. Zenbat aldiz azaldu duzu kooperatibismoa zer den?

[Barre] Ez dakit... Milaka aldiz? Kooperatibismoak etorkizuna du. Hitzaldi eta

formakuntza saio ugari egiten ditugu. Eskaera handia dugu, gero eta handiagoa.

Eta nork eskatzen ditu kooperatibismoaren gaineko formakuntza saio horiek?

Gehienbat, kooperatiben federazioek, unibertsitateek, gobernuek edo gobernuen garapen zentroek... Berriro diot, gero eta eskaera handiagoa jasotzen dugu. Eta ez hori bakarrik, gero eta gehiago dira legediak aldatuz eredu kooperatiboa bultzatzen duten gobernuak. Hego Korean, esaterako, 8.000 lan-kooperatiba sortu dituzte bi urtean. Txinan lege kooperatibo bat onartu dute nekazaritza-kooperatibak sortzeko...

Eta indarrean diraute Jose Maria Arizmendiarietaren balioek?

Balio orokorrak oso gaurkoak direla esango nuke: lanaren duintasuna, interkooperazioa, elkartasuna, pertsonaren duintasuna... Esaten dute XXI. mendea ezagutzaren mendea izango dela, kapital intelektualaren mendea. Eta zeinek dauka ezagutza? Pertsonak, ez kapitalak. Gizarte kolaboratzaile baterantz goaz, pentsamendu kolaboratzaile baterantz, alegia. Eta gaur egun badaude horretarako baliabideak. Gizartea asko aldatu da eta jendeak formazioa dauka, parte hartzeko baliabideak ditu. Ziur nago mende hau

Mikel Lezamiz Mondragon Taldeko Hedapen Kooperatiboaren arduraduna

“Uste dut erretiroa hartu ostean ere erantzukizun sozial bat dugula”

Mondragon Taldeko hainbat ardura kargutan 35 urte egin ostean, kooperatibistagoak izateaz mintzo da Mikel Lezamiz; autokontzientzia eta autoexijentzia maila ere aipatzen ditu.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: LARRAITZ ZEBERIO



kolaborazioaren, kooperazioaren eta kooperatibismoaren mendea izango dela.

Alde handia dago Arizmendiarietaren kooperatibismotik gaur egungo kooperatibismora?

Aldatu dira produktuak, teknikak... baina esango nuke enpresa eredia ez dela aldatu. Bi gauza aldatu dira, garrantzitsuak biak. 1985ean aldi bateko langileak kontratatzen hasi ginen. Talde kooperatiboan egoera horretan dauden langileen batez besteko kopurua, gaur egun, %10 da. Bigarren aldaketa handia nazioartekotasuna da. 1989an, eta bezero handi baten eskaerari erantzuna emanez, Coprecik lehenengo eta Fagor Ederlanek ondoren atzerrian produzitzeko erabakia hartu zuten. Esango nuke bi balio horiek aldatu direla.

Eta azken krisialdi honetatik aterako da irakaspenik?

Nire ustez, atera ditugu. Bere tesian Joseba Azkarragak idatzi zuen une honetan ongizatearen kooperatibismoa bizi dugula. Hasierakoa izan zen beharrezkotasuneko kooperatibismoa, eta orain bizi dugu ongizatearen kooperatibismoa. Baina garbi dago ezin dugula horrela bizi; bestela, Fagor Etxetresna Elektrikoetan gertatutakoa errepika daiteke. Hau da, loak hartzen bagaitu ahuleziak

jota hil gaitzkeela. Etorkizuneko kooperatibismo baterantz jo behar dugu, non berrikuntza, autoexijentzia eta kolaborazioa izango diren ardatz. Uste dut ikasten ari garela eta ikasi dugula. Ikasi dugu ezin garela salba gaitzaten zain egon pentsatuz hau ezin dela inoiz hil. Hil daiteke. Urtebete, bi urte, hiru urte bizi ahal izango zara, baina laugarrenean edo bosgarrenean itxi egin beharko duzu. Daukagun interkooperazioari esker iraun ahal dugu gehiago, lauzpabost urte, baina ez askoz gehiago. Kooperatibismoa berez da erresilenteagoa eta egonkorragoa, baina gure historian hogeit hamar kooperatiba itxi dira, Fagor azkena. Autokontzientzia eta autohausnarketa bultzatu behar ditugu kooperatibistagoak izateko. Gakoa hor dagoela uste dut.

Zeintzuk dira, orduan, zure ustez, hartu beharreko neurriak?

Lehenengo, hausnarketa sakona egin behar dugu. Hasierako balioak ez ditugu galdu, presente izan ditugu beti, baina eman behar diegu duten benetako garrantzia. Teknikak eta teknologiak garrantzi handia dute, baina balio kooperatiboek ere bai. Denok egin behar dugu gogoeta, baina, batez ere, kooperatibismoan 20-30 urte daramagunok. Bestalde, argi izan behar dugu enpresa bat den heinean

kooperatiba batek errentagarria izan behar duela. Ez gara lehiakorrak kopiatzeko errazak diren produktuekin. Garbigailuak, izozkailuak, boligrafoak... Asian edo Afrikan egiten dituzte orain. Horiek kendu egin behar ditugu, eta produktu berriak bultzatu behar ditugu. Balio gaintitu handiagoa ematen duten produktuak bultzatu behar ditugu, kopiatzeko zailagoak direnak. Horregatik, berrikuntza da gakoa. Berrikuntza eta formakuntza.

Formakuntzari buruz ari garen honetan, nola ikusten dituzu gaur egungo gazteak?

Nik ondo ikusten ditut, oso ondo formatuta eta lan egiteko prest. Gazteak erraz egokitzen dira gauza berrietara. Nire ustez, aurretik aritu garenon erantzukizuna da benetako balioak, jokabideak eta pentsamoldeak erakustea. Eredu izatea. Nire ustez, urte batzuetan bizi izan gara lan egiteko. Gero, lan egin dugu bizitzeko, eta orain, fase berri batean gaude non aisialdia garrantzitsuagoa den lana baino. Baina hori, lana baldin badaukazu, noski! Gazteak prest daude emateko, mugitzeko, laguntzeko... eta uste dut badituztela balioak. Gertatzen dena da guk, zaharrok, ez diegula balio horiek martxan ipintzeko aukerarik ematen. Nire ustez, On Arizmendiarrietak garrantzi handia ematen zion gazteen iritzia ezagutzeari.

Arizmendiarrietaren ikasle izan zinen, ezta? Nola gogoratzen duzu?

Bai, bi urtez izan nintzen haren ikaslea. Orain arte ez dut publikoki esan, baina, askotan, kosta egiten zitzaidan On Arizmendiarrietara ulertzea. Eskola orduetan gurera moldatzen zen eta ez nuen arazorik izaten, baina Biteriko ikastetxe nagusiko patronatuko bileretara etortzen zen, eta han bai, kosta egiten zitzaidan ulertzea. Gerora jakin dut ez nintzela bakarra. [Barre] Gogoan dut haren eskoletan ez zela izaten haserrealdirik eta eskola hasi baino bost minutu lehenago iristen zela beti. Askotan galdetu izan diot nire buruari zergatik, eta uste dut gustuko zuela gazteekin hitz egitea, gazteen iritziak entzutea, ideiak jasotzea... Jakin egin nahi zuen eta *edan* egiten zuen gazteekin izandako hizkeltaldi haietatik.

Soziologoa zara. Interesatzen zaizu politika, munduan gertatzen dena. Zergatik?

Soziologoa naiz, bai, eta politologotik ere badut apur bat. Gustatzen zait gizartearen arazoak aztertzea, eta politika ere bai. Zorionez edo zoritxarrez, dena da politika, ezta? Mundua, nire ustez, ez da bakarrik ezagutzeko edo interpretatzeko, baizik eta eraldatzeko, gure



Lantokian, Jose Maria Arizmendiarrietaren omenezko busto baten ondoan.

txikitasunetik bada ere. Nahiz eta gaur egun hedabideetan izugarrikeria handiak ikusi, mundu hau hobera doala uste dut, eta hobetzen jarraitu behar dugu. Denok dugu erantzukizun sozial hori. Baina laguntzen saiatzeko, lehenengo, ulertu egin behar dugu. Orain dela ehun, berrehun edo bostehun urte, izugarrikeria askoz ere handiagoak gertatzen ziren. Erdi Aroan, esaterako, kanpotik zetorren edozein hiltzen zuten zertara zetorren galdetu ere egin gabe. Hori aldatu egin da. Egia da erlijioak astakeria handiak sortzen dituela, baina hori ere lehen okerragoa zela uste dut. **Garrantzi handia ematen diozu, baita ere, euskarari. Zure konpromisoa argia da.** Korporazioko euskara koordinatzailea naiz eta

“XXI. MENDEA EZAGUTZAREN MENDEA IZANGO DA, KAPITAL INTELEKTUALAREN MENDEA”

“GAZTEAK PREST DAUDE EMATEKO, MUGITZEKO, LAGUNTZEKO... BADITUZTE BALIOAK”



Mikel Lezamiz,
Mondragon Taldearen
Arrasateko bulego
orokorretako atarian.

uste dut gizarte honek euskalduna izan behar duela. Bertako ama hizkuntza da, eta erro garrantzitsua gure kulturaren. Nik neuk bost hizkuntza hitz egiten ditut: euskara, gaztelera, frantsesa, ingelesa eta portugesa. Ondo dago hizkuntzak ezagutzea. Kanpora noanean gustura erabiltzen ditut, eta baita ere kanpotik jendea etortzen denean. Baina uste dut euskaratik pentsatzen dudala. Ahalegin handia egin dugu lan munduan euskararen presentzia areagotzeko. Gehiago esango nuke: uste dut euskara batzorde batek edo normalizazio plangintza batek balio gaintitu bat ematen diola enpresari. Sarri ez da loturarik egoten enpresa bereko departamentu ezberdinen artean, eta euskarari esker lotura interesgarriak sortzen

**“MUNDUA EZ DA BAKARRIK
EZAGUTZEKO ETA INTERPRETATZEKO,
BAIZIK ETA ERALDATZEKO”**

**“GERO ETA GEHIAGO DIRA LEGEDIAK
ALDATUZ EREDU KOOPERATIBOAK
BULTZATZEN DUTEN GOBERNUAK”**

dira. Ekintza bateratuak antolatzen dira, eta ekintza freskoak izaten dira, gehienetan.

Parte hartu zenuen Bilboko Gabriel Aresti euskaltegiaren sorreran. Nola ez, kooperatiba.

Egia. Ikasle garaian euskara eskolak ematen hasi nintzen Bilboko euskaltegi pribatu batean, eta, desadostasun batzuegatik, irakasle talde batek Gabriel Aresti euskaltegia sortzea erabaki genuen. Kooperatiba izaera eman genion, eta martxan da gaur egun ere.

Korporazioak kontuan hartzen ditu kanpoko errealitate linguistikoak?

Eraldaketa soziala eta unibertsaltasuna dira bi printzipio nagusi. Horrek esan gura du gizarte hobe baten alde egin behar dugula, eta gizarte errespetuzkoago baten alde. Errespetuz jokatu behar dugu ingurumenarekin, tokian tokiko kulturarekin eta hizkuntzarekin. Esaterako, Mexikon baldin badaukagu fabrika bat eta herrialde horretan kitxua bada ama hizkuntza, garbi dagoena da ezin duzula euskaraz egitea inposatu. Baina ezta ere ingelesez edo gaztelera. Kasu honetan, gaztelera erabiliko dugu elkar ulertzeko, baina kooperatibak ama hizkuntza bultzatu behar du. Bestela, ez da enpresa ona lurralde horretarako, ez da linguistikoki ekologikoa. ■

Gabon osasuntsuak igaro

SAIOA ETXABARRI ARGAZKIAK: AARON FARR

OSASUNA



Nagore Lazaro eta Saioa Etxabbarri

Terapeuta nutrizionala /
Fisioterapeuta eta osteopata

Nolakoak izango lirateke zuretzat Gabon osasuntsu eta nutritiboak? Galdera hori zure buruari eginez gero, zein izango litzateke erantzuna? Esan altuan edo idatzi, ondo sentiarazten zaituena eta nutritiboa dena azpimarratuz eta Gabonetako egun bereziotan dituzun beharrak adieraziz. Egin duzu?

Zure erantzuna, seguruenik, maite duzun pertsonengandik edota familiarengandik nutritzea izango da, menu osasungarria elkarbanatuz. Baina aurreko urteetako Gabonetara jotzen badugu, hala izan zen? Edo dugun

oroitzapena da gehiegi janda, bete-bete eginda, sabeleko minez eta umorea aldatuta amaitu genuela? Hala bada, aurtengo Gabonak osasuntsuak izan daitezten aurrerapauso txiki bat ematea gomendatzen dizugu. Ondo pentsatu eta gero idatzi hori hala izan dadin ze aldaketa egin ditzakezun...

OREKATUTA EGOTEA Gabonetako otordu koipetsuek eta familiaran giro atsegina egon dadin egiten diren esfortzuek bizitasuna eta indarra kentzen digute.

Esfortzuak esaten dugunean, prestaketa guztiaz ari gara: bazkari eta afari handiak prestatzeaz, gutzia garbitzeaz, familia osoa elkartzeko dena prest izateaz, opariak erostez... Askotan, on egiten diguna baino energia gehiago erabiltzen da horretan; are gehiago, deserosoak diren egoerak ere bizi izaten dira *familia-harmonia* mantendu nahian.

Pentsatu eta sentitu zerk eragiten dizun energia galtzea, modu horretan irtenbidea eman eta zaindu ahal izango duzulako. Eta



adierazi familiakoei, esfortzuak guztien artean elkarbanatuz; etxeko txikienek parte hartzeak, esaterako, harmonia sortuko du familiaran. Guztien artean arituz gero, norbera ere zaindu daiteke. Gainera, modu horretan, ez dugu horrenbeste janari beharko, ezta horrenbeste opari ere aseta sentitzeko.

Zaindu ezazu zure gorputza uneoro: elikadura, atsedena, posturak, emozioak. Garrantzitsuena hori guztia orekatuta egotea da.

LOAREN ONURAK Gauez ondo lo egiteak nerbio-sistema orekan mantentzen laguntzen du, horrela muskuluak ere ondo manten-



Familian

☑ Gabonetan familiarekin mahaiaren bueltan partekatzeko ohitura dago.

organismoa desorekan dagoenean, atalek ez dute beren funtzioa behar bezala betetzen, epe luzera gaixotasuna sortuz. Bada, osteopatiak atal bakoitzak bere mugimendua berreskuratzen laguntzen du, homeostasia edo oreka lortu ahal izateko; hori bai, pertsonaren ingurunea, egunerokoa, nutrizioa barne, egokiak badira.

AURRERAPAUOAK Aurtengo Gabonetan aukeratzen duzun elikagai bakoitza dastatu eta disfrutatzea proposatzen dizugu, mastekatzeko beharrezkoa den denbora hartuz. Bizitasuna lasai mastekatzearen laguna da, baita digestio errebatena ere, eta barazki gordinena ere bai. Baina ez da hain lagun ona koipe saturatu, alkohol eta azukre zuriena...

Fruta freskoa jateaz gogoratu eta Gabonetako menuan janari gordinak probatu, koloretako entsaladak: azenarioa eta sagarra, barazki berdeak, erremolaxa, fruitu lehorrak, ahuakatea... Elikagai gordinak gainerako janarien digestioa hobeto egiten lagunduko digute.

Urteroko patearen alboan, pate begetala ere jartzea gomendatzen dizugu: hummusa, guakamolea, onddo pateaa...

Alkatxofak urdaiazpikoarekin edota arrain-zopa gainerako plater energetikoen aurretik jatea ere gomendagarria da, aseta sentitu eta ondorengo plater energetikoak hobeto dastatzeko.

Aurtengo proposamena aurrerapauso txiki bat izan dadila. ■

duz eta baita digestioak ere. Horrekin guztiarekin, hestetakoko flora osasuntsuarekin, nutrienteen xurgapen egokia lortzen da eta baita emozionalki orekatua egotea ere. Hala, jaten ditugun elikagaiak ondo aukeratuta, lo egitean deskantsu ona bermatuko da, bizitasuna eta energia lortuz eta mantenduz. Garrantzitsua da, era berean, janariak poliki eta ondo mastekatzeko.

Organismoa anatomo-fisiologikoki orekan dagoenean –bai fisikoki eta baita emozionalki ere–, gorputzak berak oreka hori mantentzeko ahalmena dauka, bere burua sendatzeko. Baina

Zaindu gorputza uneoro: elikadura, atsedena, emozioak... Hori guztia orekan egotea da giltza

Gorputza bere osotasunean lantzen

TESTUA ETA ARGAZKIAK: ARANTZAZU EZKIBEL

Azken boladan indarra hartu duen jarduera fisikoa da pilatesa. Bailerako kiroldegi gehienetan eskaintzen den jarduera da egun. Aretxabaletako kiroldegian Iker Arriolabengoak egiten ditu gidari lanak, eta harekin izan da PUNTUA, pilatesa hobeto ezagutzeko.

SASOIAN JARTZEKO Pilatesa ariketa fisiko sistema bat da, sasoiari jartzeko, lesioak ekiditeko edo sendatzeko eta entrenatzeko laguntzen duena. “Ariketak modu lasai, ezberdin eta atseginean egiten dira”, azaldu du Iker Arriolabengoak irakasleak. Gaineratu du: “Mugimenduen zehaztasunari ematen diogu garrantzia, eta ez hainbeste mugimenduak behin eta berriz egiteari”. Izan ere, oso garrantzitsua da teknika ona izatea ariketak egiterakoan. Modu horretan, egiten dena eraginkorra izango da. Horregatik, irakaslearen lana oso garrantzitsua da: berak egokituko du saioa pertsona bakoitzaren beharretara.

Arriolabengoak dio ongizatea lortzea helburu duen jarduera dela pilatesa: “Fitness-aren eta wellness-aren artean dagoen ezberdintasuna hori da; bata kirolari begira dagoen jarduera da eta bestea, ongizateari begira”. Borondatez egin behar den jarduera dela dio, eta kontrola oso garrantzitsua dela. Modu horretan jarrera zuzena mantenduko da saio osoan.

ONURA UGARI DITU Arriolabengoak oso argi dauka pilatesa egiteak onura asko dituela pertsonarengan. Hala ere, dio jarraikortasun bat ematea ezinbestekoa dela onura horiek igartzeko. “Giharrrak indartzen ditu bolumena handitu gabe”, azaldu du Arriolabengoak. Gainera, malgutasuna ere hobetu egiten du.

“Bizkarrezurra gogortu eta lesioak ekiditeko balio du”, dio Arriolabengoak. Zentroari ematen zaion garrantzia kontuan hartuta, gihar abdominalak, bizkarrezur lumbarrak eta gluteoak indartzen dira. Zentroa indartsu izanda, lesioak ekidin daitezke. Horrez gain, postura hobetzen ikasten da: “Ohitura txarrak alde batera utzi eta bizkarrezurra zuzen lerrokatzeko ariketak egiten ditugu”. Garrantzitsua den beste onura bat da gihar desoreka zuzentzen duela: “Gorputz osoa lantzen da. Hanka, zentroa, besoak... jarduera orokorra da”, azaldu du Arriolabengoak irakasleak. Modu horretan, gorputz guztia landuta, estresarekin lotutako arazoak konpontzeko ere balio du. “Tentsioak, minak eta nekeak txikituta estresa konpontzen da”, azaldu du aramaioarrak.

Fisikoki izan dezakeen onuraz gain, pilatesak baditu beste onura batzuk buruarekin zerkusia dutenak: autoestimua igo eta kontzentrazioa eta kontrol ahalmena hobetzen laguntzen du. “Fisikoki ongi egoteak dakarren ondorioa da”, dio.



Jardueraren jatorria

XX. mende hasieran sortutako jarduera da pilatesa: Joseph Pilatesek sortu zuen. Hainbat diziplinatan oinarritu zen Pilates jarduera sortzeko: gimnasia, traumatologia eta yoga. Lotu nahi izan zituen: dinamismoa eta giharren indarra, buruaren kontrolarekin, arnasketarekin eta erlaxazioarekin.

Hasiera batean, *contrology* izena jarri zion jarduerari Pilatesek berak; izan ere, buruaren bitartez gorputza kontrolatzea helburu du jarduerak.



Aretxabaletako Ibarra kiroldegian emakume taldea pilates egiten.

Gorputza indartuz gero, giharretako min gutxiago izaten dira; pilatesak laguntzen du giharretako min gutxiago izaten; batez ere, bizkarreko minak. Kirol errendimenduari ere badu lotura: “Beste kirol batzuk praktikatzen dituztenendako egokia da. Kirol osagarria izan daiteke, gorputza indartuz errendimendua hobeto daitekeelako”, dio Arriolabengoak.

Hau ere badio: “Norberaren osasuna eta irudia hobetzen duen jardura da pilatesa”.

Oinarrizko printzipioak

KONTZENTRAZIOA

Gorputza eta burua ondo koordinatzeko.

ZENTROA

Gorputzeko energiaren zentroa litzateke.

ZEHAZTASUNA

Zehatz egin behar dira eraginkorrak izateko.

JARRAIKORTASUNA

Ariketa bakoitzak bere eritimoa dauka.

ARNASKETA

Ariketak arnasketa jakin batekin egiten dira, oxigenazioa hobetu eta toxinak kentzeko.

IRAKASLEAK EGOKITUKO DU ARIKETA PERTSONA BAKOITZAREN BEHARREN ARABERA

ARNASKETA SAIOAK Arriolabengoak dio hasierako saioetan arnasketa ariketak egiten dituztela, arnasketa nola kontrolatu jakiteko. Kanpotik ikusita jardura geldoa dirudien arren –beste jardura kardiobaskular batzuekin alderatuta–, nabarmendu behar da jardura gogorra dela. “Hasierako posizioak geldi egotekoak dira, baina gero, era dinamikoan jarduten da”, dio Arriolabengoak.

Pilatesa denok egiteko moduko jardura dela azaldu nahi du Arriolabengoak. “Nork bere ahalmenen arabera egingo ditu ariketak”, eta gaineratu du: “Taldekako jardura edo jardura terapeutikoa izan daiteke pilatesa”. Bigarren kasu horretan, nahiz eta taldekako jardura egin, irakasleak modu pertsonalizatuan egingo du lan, bakoitzaren mugak kontuan hartuta. Oso garrantzitsua da ariketak egiterakoan minik ez izatea. ■

Aitak ere bagara, izan

TESTUA: IÑAKI KASARES ARGAZKIAK: EN.WIKIPEDIA.ORG

ADITUEN ESANETAN



Iñaki Kasares

Gizon Ekimena elkarteko kidea

G eure mendebalde honetan gizonok historiaren pasarte luzeetan dezente bazterrean utzi dugu aitasuna. Gizarteak esleituriko eta guk barneraturiko rolek horretara eramán gaituzte, eta horretantxe egon gara geu ere, beste eginkizun batzuetan, aitasuna hazia eman eta hornitzea besterik ez balitz bezala ia beti.

Gure aita zena ildo horretakoa zen. Inoiz ez zen arduratu bere seme-alabak zaintzeaz. Tailerrean lan egiten zuen egunero hainbat orduz, astero-astero saria etxeratu eta amari eman –beretzakoa aurretik hartuta, jakina–. Bere lanaldia amaiturik, lagunekin basoerdi batzuk edatera joango zen egunero, eta afaltzeko orduan etorriko zen etxera. Jatorduak ziren aitarekin ematen genituen une bakanak. Oso gutxitan jolasten zen gurekin –oraindik dauzkat gogoan horietako une batzuk–, ez zen gurekin hondartzara etortzen. Oporraldian ere, Burgos edo Nafarroako Erribera aldean etxe bat alokatu eta hara joaten ginen bi hilabetez gure ama, arreba eta hirurok, beste senide batzuekin

sarritan, baina aita Santurtzin geratuta. Asteburuetan etortzen zen, eta hamabost bat egunetan, bere oporraldian.

Alderantzizkoa eman badezake ere, gizon ona zen gure aita. Guretzako onena gura zuen, eta bizia ere emango zukeen geure alde –izan ere, egunero-egunero bere bizi-apurra eman zuen geu bizi gintezan–. Bere garaiko eta tokiko gizona zen, eta bere garaiko eta giroko gizon gehienen antzerakoa. Jakina, nere lagun gehientsuenen aitak ere holakoak ziren, gutxi-asko.

Gizarteak hezi eta berak barneratu zuen erara jokatzén zuen geure aitak; beretzat hori zen normaltasuna.

ALDAKETA ABIAN Orain arteko esperientzia hau nire belaunaldiko jende askorena izan daiteke. Hala ere, zorionez, gizartea aldatzen ibiltzen da beti, eta alor honi dagokionez ere aldatzen dabil, apurka-apurka. Aldaketa honen erakusgarrietako bat izan daiteke orriotan aitatasunari ataltxo bat eman izana, baina badago bestelako zantzurik: gero eta aita –eta aitaita– gehiago ikusten dut beren seme-alaba txikiekin paseatzen, jolasten, jatekoa ematen, medikuarenera eroaten, hobeto zaintzeko informazioa hartzen...

Azken finean, geroago eta gizon gehiago hasiak gara uler-tzen gu haurren bizitzetan –eta haurrak geuretan– presente izatea onuragarria dela geuretzat eta denentzat, nahiz eta askotan



**ARI GARA OHARTZEN
ORAIN ARTEKO
GIZONTASUN EREDUA
KALTEGARRIA DELA**



Aita bat bere
umetxo txikia
besoetan
loarazten.

Honetantxe dago aitatasun gizakoiaren gako nagusienetako bat, nik uste; ezin dugu bestelako aitatasuna gauzatu gizotasun ohiko eredu hegemonikoa gainditu barik; eta aldi berean, aitasunetik ekarpen handia egin dezakegu sexismorik gabeko eta berdintasunezko gizartea eraikitzeko.

Gure seme-alabekiko harreman guztizkoa nahi baldin badugu, guztizko aitak izango bagara, sexismotik datozkigun rolak, jarrerak, pentsaerak kritikoki aztertu eta, maiz, aldatu behariko ditugu, baita errotik aldatu ere.

Ez da samurra, ez gaitzen engaina. Baina baditugu gure aldekoak ere. Gizon gehiago, aita gehiago izaten ditugu inguruan, haiekin konpartitzeko bozkarioak, zaputzak, zalantzak, lorpenak, elkarrengandik ikasi, elkarri irakasteko...; emakumezkoak ere baditugu, urte askoan sexismoaren aurkako lan esker-ga egin dutenak, eta ekarri ederra egin ahal digute gure aldaketa honetan. Gatazkak sortuko dira, noski, edozein prozesu sozial eta pertsonaletan bezala, baina baliabiderik badago egon egoki goberna ditzagun.

Jo dezagun aurrera, ba, gizonok! ▣

Gure adituendako galderak dituzula?
Bidali zure zalantzak, eta argitzen
ahaleginduko gara.
mbelastegi@goiena.eus

emozio desatseginak berpizten zaizkigun.

Abian den aldaketa hau, beharbada oraingoz lausoa dirudiena, ezin liteke uler gizotasuna bizitzeko moduetan gertatzen ari den aldaketaz aritu ezean. Aldaketa orokorra da hau, oraindik ere lausoa, baina bizitzaren alor guztietan antzematen hasi dena –ez naiz ausartzen oraindik esatera gauzatzen–; alegia, geure buruaz, gainontzeko jendeaz eta, orobat, munduaz geure ikuskera eta haiekiko harremanetan. Gero eta gizon gehiago ari gara ohartzen orain arteko gizotasun eredu kaltegarria dela zeharo. Kaltegarria geure ingurukoen zat, eta geuretzat ere bai.

BESTELA BIZITZEKO GOGOIA Benetan uste dut gizonezko askok nahi dutela bestela bizi, hots, beren bizitzetan tarte handiago eman gura diotela maitasunari, jostatzeari, laguntasunari, alaitasunari, hurbiltasunari, zaintzeari –hala beren burua nola besteak–, sentitzeari... hau da, gizatasunari; eta, ondorioz, tarte txikiagoa isolamenduari, etengabeko arrazionalizatzeari, solemnitateari, agintekeriari, lehiakeriari, indarkeriari, emozioei ez-ikusia egi-teari, eta abarri. Ziur naiz, gainera, gizon hauek askoz ere gehiago liratekeela ikus balezate egingarria dela ohiko eredu heretsi eta zapaltzaitetik atera eta gizabidezkoago bati atxikitzea.

Mazapan eta turroi eskaintza zabala Mujika gozotegian

ARGAZKIAK: AMAIA TXINTXURRETA

OTORDUAN



Xabier Mujika

Mujika gozotegiko arduraduna
mujikagozotegia@gmail.com

Azaroaren azkenengo astean hasi ginen Mujika gozotegian Gabonetarako turroiak eta mazapanak egiten eta saltzen.

Mazapanei dagokienez, eskaintza zabala daukagu: hainbat formatako irudiak egiten ditugu; umeendako aproposak izaten diren aingurak saltzen ditugu kaxatxoetan; goringoa eta gurina daraman errusiar pontxea izaten dugu, gainetik mazapana jarrita...

Bergarako Artekallean dagoen Mujika gozotegiaren barruko aldea.

Gabonetako zaporea

Mazapanak Gabonetako zapore tipiko bat dauka, eta horixe aukeratu dut, bezeroei betidanik gustatu izan zaielako. Mujikan betidanik egin izan ditugu mazapanak eta etxean egiteko ere turroia baino errazagoa dela esango nuke. Prestatzeko orduan kontuan hartu beharreko puntu bat hauxe da: komeni da labean ez edukitzea denbora luzean, pare bat minuturekin nahikoa izaten da, kolorea hartzen duenera arte. Izan ere, labean denbora luzean uzten badugu, lehortu egiten da eta, urtsua egotea komeni izaten da.

Turroietan, berriz, goringo turroia eta Cadizkoa dira salduenak. Aitak bere garaian egiten zituen, eta nik horiek egiten jarraitzen dut gaur egun ere. Hala ere, baditugu beste hainbat: intxaurrak eta trufak dituena, Xixonakoa, laranja eta gurinarekin egindakoa, txokolatzeko turroia almendrekin, txokolatzeko arrozarekin... Garai batean turroiak eta mentazkoak ere egiten genituen, baina jendeak zapore klasikoak atseginago ditu.

Turroi sortak ere saltzen

ditugu Gabon sasoiari. Erretilu edo bandeja batean hainbat zaporetako turroien zatitxoak jartzen ditugu, eta aproposak dira bazkari edo afarietan horiek mahaian jarri eta denetariko eskaintza izateko. ■





Bergarako Mujika
gozotegian prestatutako
mazapanak.

Mazapana (kilo 1)

Osagaiak

Markona almendra, _____
600 g _____
Azukrea, 400 g _____
Ura, 200 g _____
Limoi esentzia, tantatxo
batzuk _____

Prestaketa

1. Almendra xehatua nahastu ontzi batean azukrearekin eta urarekin, guztia uniforme gelditu arte.
2. Eskuz edo arrabolarekin (rodilloa) birrindu, masa biguna lortu arte.
3. Limoi esentzia tantatxo batzuk bota.
4. Nahi diren formak eman masari: aingirak edo irudiak egin.
5. Txapa batean jarri eta egun bat utzi bertan.
6. Hurrengo egunean sartu labean 220 gradura, 2 minutuz, kolorea hartu arte.
7. Hozten utzi, eta jateko gertu egongo da.

Denbora: 45 minutu. Zailtasuna: ★★☆☆

MUJIKA GOZOTEGIARI ESKER IRABAZI TURROI SORTA. HARTU PARTE:

📞 943 25 05 05 ✉️ kluba@goiena.eu 🗨️ **KLUBA** *Jatetxea* [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Aurreko zozketako irabazlea: Esther Merino Madariaga (Arrasate).

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eu

goienakluba[“]
Euskara irabazle, denok irabazle!

Gabonetan itsutu gabe distira egiteko

TESTUA: MAIDER ARREGI ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO ETA GOIENA

Gabonekin batera, egun osora luzatzen diren bazkariak eta festak ere ate joka daude. Makillajeak irautea zaila da; miraria, kasu askotan. Dantzatu, izerditu, barrez lehertu... horri guztiari aurre egitea eta etxetik atera berri dirudien aurpegia edukitzea ez da eta erraza! Baina ospakizun hauetarako zein makillaje da egokia? Zein tonurekin arriskatu daiteke? Maria Gartzia estilista eta irudi aholkulari arrasatearrak eman ditu gakoak.

IRAUPENA Bi gin-tonicen ostean ezpainetakoak irautea zaila da. Eta, hain justu, jendeak irauten duen makillajea gura duela dio Gartzia. “Zalantza gabe, irauten duten ezpainetakoak eta azazkaletako lakak dira desiratuenak. Gazteek, gainera, makillaje-ba-



se iraunkorra ere gura dute. Helduek, aldiz, aurpegiari argitasuna ematen diotenak”.

DORATUA Begi itzal ilunak Gabonetako tendentzia indartsuak diren arren, tonalitate doratua ere oso gustukoa dutela askok dio: “Aurten doratuarekin batera brontzea eta plata indartsu sartu dira. Kolore mateak albo

batera geratu dira eta distiratsuak dira nagusi. *Eye-liner* beltza erabilia borobilduko dugu begiko makillajea”.

GUTXIREKIN HOBETO Oso garrantzitsua da norberaren azalaren tonalitatea daukan makillaje-ba-sea ematea. “Beti esaten dut gutxiagorekin hobeto egongo garela eta beti asmatuko dugu-

Ausartu!

Gabonetako festa egunek –eta, batez ere, gauek– makillaje bortitzagoa onartzen dutela dio Gartzia estilistak. Horregatik, beldur gabe askotariko koloredun paleta zabaldu eta kolore bizien alde egin daiteke: “Begiak asko markatu daitezke; urdinak eta betiko beltza erabilia, adibidez, begi itzalak markatu daitezke. Hain zuzen ere, kolore iluneko begi itzalak dira arrakasta handien dutenak gaztetxoen artean”.

Ezpainek tonu gorrikoak izaten jarraitzen dute: “Gorriak bai, baina marroiak, moreak, fuksiak eta bioleta tonua dutenak ere nagusi dira. Une honetan tendentzia da koloreak degradatzea”.



Kolore askotako begi itzalen paleta.

**Amaia Albes**

Diseinatzailea

info@amaialbes.com

Atzoko ofizio, gaurko afizio

Aro honetan artisauek erakusketa eta merkatuak dira ohikoak. Santa Lutzian galdu bazenuen aukera, San Tomas eta santamasetan duzu bigarren deia; eta hauetan ere kale egingo bazenu, Gabonetako merkatuek emango dizute aukera.

Itzalean sortzen diren lanak gogoratu eta laudatu nahi ditut gaurkoan. Inoren mirespenik gabe, isilean, hanka puntetan balitz bezala, jaiotzen diren artelanak eta sortzaileak ekarri nahi ditut gure artera. Atzoko ofizio zirenak gaurko afizio bihurtu dira. Baina artisauek ez dago gaixo; belaunaldiz belaunaldi igaro dira egitekoak, eta oraindik txokoa dute gure artean, artisauei esker eta baita eskuz eginiko lanak ulertu eta baloratzen duten bezero askori esker.

Itzalean jarraituko dut, puntadaz puntada, ofizio eta afizio hauek zuekin partekatzen; eskerrik asko eta bejondeizuela! ■

la. Melokotoi tonalitetea daukan kolorete suabea eta errimel pixka batekin asmatuko dugu. Ezpainetako ere kolore pixka bat daukan distiraduna izan daiteke. Makillaje hau aproposa da egunez eramateko. Aurpegi garbia duzun sentrazioa ematen du. Gauerako, ordea, kolore bortitzagoak erabiliko ditugu: gorriak edo fuksiak ezpainak markatzeko; eta begiak markatzeko beltza erabiliko dugu, esan bezala”, azaldu du Gartzia.



EGUN OSOAN IRAUTEKO Gaur egun badaude merkatuan hainbat produktu makillajea tinkotzeko balio dutenak: ezpainetako delineatzaileak, begi itzalak ez itzaltzeko gelak, makillajea mantentzeko espraiak eta hautsak... Gainera, makillatzen hasi aurretik, azala ondo garbitzea eta hidratatzea ezinbestekoa da makillajeak iraun dezan.

ETA GIZONEZKOEK? Ez da ohikoena gizonezko bat makillatuta ikustea egunerokoan, kalean. Baina

telebistarako eta argazkietarako makillatu egiten dira. “Zuzentzaile batekin inperfekzioak estaliko ditugu aurrena. Ondoren, azalaren koloreko basea jarriko diogu. Matifikatzeko hauts batzuk eta argiztatzailea masailetan, bekain azpian eta kokotsean. Ondoren, begi itzal naturala eta errimel gardena jarriko diogu. Azkenik, bekainak orraztuko dizkio eta mutila prest egongo da makillaje naturalarekin!”. ■

Focus Kopan hirugarren

TESTUA: JOSU BILBAO ARGAZKIAK: SERGIO GIL ETA JOSU BILBAO

Pozik bukatu du denboraldia Mikel Altuna oñatiarak. Opel Corsa batekin urteak lehiatzen eman ondoren, 2015ean Focus Kopan lehiatzea erabaki zuen, eta urtea espero baino hobeto joan da: “Ilusio handiarekin bukatu dugu urtea. Ez genuen espero horrelako emaitzarik. Lehenengo intentzioa erdi mailan ibiltzea zen, Kopa hau ezberdina da eta. Denok ibili gara auto berdinekin eta neurri berdinekin, eta pilotuen mailak pisua izan du. Pilotutza maila gehiago landu behar izan dugu”.

Sailkapen nagusian hirugarren postua lortzeaz gain, lasterketa bat irabazi dute Altunak eta Fuentek. “Baños de Riojako proba irabazi genuen. Txapelketako hirugarren lasterketa izan zen, eta gure lehenengo podiuma. Oso pozgarria izan zen, ez genuen-eta hain azkar irabaztea espero. Gainera, segundoko kontua izan zen. Ez zen bi

segundoko aldea ere izan bigarrenarekiko. Kopak duen ona hori da, azkenean. Parekotasun handia dagoela”, dio Altunak.

LUR GAINEAN Mikel Altuna ez da inoiz asfaltoan lehiatu. Hasiatik lur gaineko probak izan ditu gustuko: “Oñatiko auto-krosean hasi nintzen nire lehenengo pausoak ematen, eta ondoren, Corsa batekin parte hartzen hasi nintzen. Gero, Errioxan lur gaineko rallyetan lehiatzen hasi nintzen, eta jarraitu egin dut”.

Lur gaineko probetan bolantearekin lan handiagoa egin behar dela azpimarratu du oñatiarak: “Gehienbat, lur gainean autoa gehiago mugitzen delako. Asfaltoan beti joan behar duzu zure ibilbidetik. Hau da, autoak bere lekutik joan behar du. Lur gainean bolantearekin lan handiagoa egin behar da. Nik ez dut asfaltoan parte hartu, baina, hasiera baten, hori izango litzaiteke berezitasun nagusia”.



Gainera, ibilbidean arreta berezia jarri behar dute, egon daitezkeen harriak eta oztopoak saihesteko: “Arreta handia jarri behar da; izan ere, errepidean harriak eta beste oztopo batzuk egoten dira eta autoarentzat kaltegarriak izan daitezke. Horregatik, lasterketa aurretik notak ahalik eta zehatzen hartzea oso garrantzitsua da”.



“PILOTUTZA MAILA GEHIAGO LANDU BEHAR IZAN DUGU”

MIKEL ALTUNA



NAFARROAKO RALLYA Aurten aurreneko aldiz jokatu da lur gaineko Nafarroako Rallya: “Oso berezia izan da, nazional mailakoa izan delako. Guk erregional mailan parte hartzen dugu, eta hor oso pilotu onak egon ziren. Gu ohituta gaudena baino prestigio handiagoko lasterketa da. Normalean, rallysprintetan parte hartzen dugu. Hau da, zati berean

Ezkerreko argazkian, Mikel Altuna Oñatiko pilotua bere Ford Focus gorrian eserita.

Beheko argazkietan, Mikel Altuna eta Erik Fuente oñatiarrak Nafarroako Rallyan.

hiru pasada egiten ditugu. Baina Nafarroakoa rallya izan da, zati ezberdinekin”.

AUTOAREKIN POZIK Ford Focus autoak uste baino hobeto erantzun du lasterketetan, oñatiarrak azaldu duenez: “Autoarekin oso pozik nago. Gogorra da, eta ez dit ia mantentze-lanik eman. Kopa hau Focusarekin egitea horregatik aukeratu dutela uste dut”.

Ford Focus hauek ez dute ia hobekuntzarik, eta pilotuen arteko lehia handitu egiten du horrek: “Txapelketak bost lasterketa izan ditu eta bakoitzean pilotu ezberdin batek irabazi du. Auto berdinarekin ibiltzeak hori ekar dezake, eta polita da”.

JARRAITZEKO ASMOA Aurten zazpi partaide izan dira Focus Kopan, eta 2016an aurrerapausoa ematea espero du Mikel Altunak: “Datorren urtean Kopan jarraitzeko asmoa dugu, txapelketa irabazteko itxaropenarekin”. ■



KOLABORAZIOA



Aitor Lopez

Goiena Classic Club

goienaclassicclub@outlook.com

‘Autotrikoak’

Historiako lehenengo autoa bapozekoa izan zen, Nicolas Joseph Cugnot frantziarraren *Fardier à vapeur* 1769. urtean, eta gasolinazkoa 1886. urtean asmatu zuen Karl Friedrich Benz ingeniari alemaniarrek. Hala ere, gaur egun gure errepideetan ikusi ahal ditugun %0 emisiodun autoak ez dira oraingo asmakizunak. Hain zuzen ere, gasolinazko ibilgailuak baino dezente lehenago sortu zuen Robert Anderson enpresari eskoziarrak, 1832 eta 1839 urteen artean. Hala ere, 6 kilometro orduko abiadurarekin eta batez ere berriro kargatu ezin zen pilarekin auto hura ez zen errentagarria.

Gasolinazko autoa asmatu zen urte berean berriz kargatzeko bateria asmatu zuten eta 13 urte geroago, autoaren abiadura errekorra hautsi zuen Camille Jenatzy belgikarrak 105,88 kilometro orduko abiadura lortu ondoren. Harrigarria benetan... ■

Bernat Alberdi

TESTUA: ARANTZAZU EZKIBEL ARGAZKIAK: BERNAT ALBERDI

Mapak argazki erakusketa dauka ikusgai Bernat Alberdik (Bilbo, 1979)

Bergarako Pol-pol tabernan. Herritarrei egindako erretratuak dira.

Erretratuen bitartez herritarrak lotu dituzu.

Idea zen kalean bilatutako jendeari erretratuak egitea eta ondoren eurak lotzea, sare bat sortuz.

Nola egin duzu lan?

Kalera joan naiz, jendeari ideia azaldu eta prest zegoenari argazkia egin diot. Argia eutsi didan lagun batekin ibili naiz lanean. Erretratu bereziak dira: argi neukan erretratu itxiak nahi nituela. Oso lente txikia erabili dut, eta gertutik atera argazkia, aurpegiak ahalik eta gezur gutxien esan zezaten.

Argazki gogorak dira. Zergatik?

Idea horixe bera izan da. Aurpegiak bizitzako mapak dira. Ahalegintzen naiz hori adierazten; horregatik ez ditut ximurrak leuntzen, dagoena erakustera joaten naiz, eta, askotan, hori ez da samurra izaten.

Ze harrera izan du erakusketak?

Uste dut jendeari gustatu zaiola. Konturatu naizena da nik egiten dudan tratamendua oso gogorra dela, ez dira etxean edukitzeko argazki errazak. Erakusketa baterako dira, eta fakzioak gogortu egin ditut. Jendearen partetik jaso dudana da: “Argazki politikak dira, baina zure kamera aurrean ez naiz jarriko inoiz!”.

Samurra izan da jendea konbentzitzea?

Orokorrean, esango nuke ez dela zaila izan. Emakume gutxi daudela esan didate, eta egia dena da ni emakumeengana eta gizonezkoengana berdin joan naizela, baina emakume gehiagok esan didate ezetz.

Egindako 13 erretratuekin sare bat sortu duzu. Guztiak lotu dituzu?

Ez, bat ez dut lotu lotzea. Gizonezko bat inork ez du ezagutzen, eta berak ez digu kontakturik utzi berarekin harremanetan jartzeko. Bergara ez da herri handia eta ez da zaila izan euren arten lotzea.

Erakusketak bidaiatuko du beste herriren batera?

Hasiera baten, ez du bidaiatuko: honako jaio da eta hemen hilko da. Gainera, hainbat argazki saldu egin ditut. Buruan daukat Oñatin antzerako zerbait egitea.

Argazkilaritza afizioa eta ofizio duzu egun.


Bideo eta argazki munduan mugitzen naiz eta mugitzen naizen argazki mundua estudioko argazkia dela esan daiteke. Erakusketa honetan alde pertsonalagoa atera nahi izan dut. Nire lehenengo erakusketa izan da. **Nolako argazkiak egiten dituzu?** Paisaia asko ateratzen ditut; nire ustez, baina, pertsonarekin asko irabazten du argazki batek. Horregatik, ahalegintzen naiz lanetan pertsonak ateratzen. ■





Erretratuak eta paisaiak

☑ Bernat Albedik erretratuak eta paisaiak jasotzen ditu argazkietan. Debagoienak eskaintzen duena jasotzen du.



Toberako gezi berriak Eskoriatzara begira

TESTUA: AITZIBER ARANBURUZABALA ARGAZKIAK: BAGARA HERRIGINTZA

Aretxabaletako Araba ibilbideari izena aldatu eta Eskoriatzako ibilbidea izena jartzea agindu zuen iazko Toberan On Piper Hautsa epaileak. Horrez gainera, aurtengo San Pedro egunean, aretxabaletarrek eta eskoriatzarrek elkarrekin ekitaldi ofizial bat antolatu eta Kurtzebarriko gurutzearen puntan Eskoriatzako bandera jartzeko agindua ere jaso zuen Bagara Herrigintzak antolatutako antzerki satirikoko epaiak.

Bada, Aretxabaletak epaia bete ez duela ikusita, Eskoriatza ez da geldirik geratu eta eurena dena hartu dute: Kurtzebarri mendiko gurutzea. Aretxabale-

tak, baina, iazko epaia ez betetzeko arrazoiak zituela esan zuen, eta, gertatutakoa ikusirik, aurtengo Toberan Eskoriatza eramango du auzitara, iazko Toberan legearen aurrean Eskoriatzakoak gezurretan aritu izana leporatuta.

30 LAGUN INGURU TAULAREN GAI NEAN Ibai Zangitu aretxabaletarra izango da fiskala eta hark leporatutakoei erantzutea egokituko zaio Ahinara Zubizarreta eskoriatzarrari. Aurrekoetan moduan, Mikel Irizar izango da epailea.

Horiekin batera pertsonaia asko izango dira bosgarren toberan: pregoilaria, askotariko leku-koak, dantzariak, txistulariak,



trikitilariak... “Aurtengo lantaldean toberan edo bestelako antzerki lanetan eskarmentua dutenak daude, batetik, baina badira lehenengoz parte hartuko dutenak ere. Duda barik, herritarrek egindako antzezlanak izaten jarraitzen du toberak. Debagoieneko herrietako kultura talde eta eragileekin elkarlanean jardutea da-eta hastapenetatik dugun helburu nagusietako bat”, azaldu du Aitor Agirianok, aurtengo toberako koordinatzaileak.

Pertsonaien izaerari dago-kionez, batzuk oso komikoak direla dio Agirianok, besteak beste, iazkoan parte hartu zuten Mari Karmen eta Mari Paz atsoak aipatuta. “Debagoieneko historian esanguratsuak izan diren pertsonaia historikoak eta serio-koak ere agertuko dira; aurreko edizioetan ikusi dugun Telesforo Monzon, horien artean”, gaineratu du Agirianok.

BOSGARREN ANTZERKI SATIRIKOA Herri-tarrek sortua eta antzeztua, kultur ekimen komunitario euskaldun, anitz eta parte hartzailea izateko helburuarekin abiarazi zuen Bagara Herrigintzak, 2011n,



On Piper Hautsa
Epailea

Bosgarren urtez herrietako liskarrak goxatu guran

Ez dakit, ez dakit... Aurtengo Toberan berriro dator liskarra Aretxabaletaren eta Eskoriatzaren artean. Bosgarren urtea da, eta ez dakit aurrera goazen, ez dakit. Dagoeneko lau aldiz saiatu gara herrien arteko liskarrak plazaratzen eta umorearen ukenduaz goxatzen, zauriak osa daitezten.

Eta lau urtez epai zintzoa eman dut, betiere, justizia egiteaz gain bizikidetzak hobetzeko helburuarekin. Baina apenas betetzen diren epaiok, apenas aurrera egiten dugun eskualde modura, apenas indarrak geratzen zaidan...

Bosgarren Tobera dator, eta ahul nago. Ez dakit nire gorputz zaharrak eutsiko ote dion.



Eskoriatzako partaideak, udaletxearen aurrean, dena emateko prest

ANTZERKIA

TOBERA

Bagara Herrigintza.

Abenduaren 28an, 19:30ean.

Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian.

Sarrerak 8 eurotan. Eskoriatzako kiroldegian eta Hotela tabernan; Aretxabaletako Belar Meta dendan; Arrasateko Ttukun dendan; Oñatiko Txokolateixan; Bergarako Pol-Pol tabernan eta *Bibe.me* atarian.

Ipar Euskal Herrian ezagutu zuten antzerki mota. Arrasaten egin zuten lehenengoa, Bergaran hurrengoa; horien segidan etorri ziren Oñatiko eta Aretxabaletakoa. “Egunerokotasunean herrietan berbegai ditugun gaien autokritika egingo dugu bosgarrenean ere; betiere, umorea oinarri hartuta. Berrikuntzak eta ezustekoak ere izango dira. Zelakoak? Inuzente egunean etorri Eskoriatzako kiroldegira eta bertan aurkituko dituzue erantzunak”. ■



Ahinara Ibarraundi eta Rodolfo Zangilikuatre

Toberako abokatua eta fiskala

Ahinara Ibarraundi: “Burumakur itzuliko dira bidegorritik oinez etxera!”

Epaiketarako bost egun eskas faltan, buru-belarri ari dira aurtengo epaiketarako argudioak prestatzen Ahinara Ibarraundi (Ahinara Zubizarreta) Eskoriatzako abokatua eta Rodolfo Zangilikuatre Aretxabaletako fiskala (Ibai Zangitu).

Ze asmorekin zoazte tobera epaiketara?

Rodolfo Zangilikuatre: Justizia egiteko asmoarekin noa ni. Aretxabaletak oraindik ez du ahaztu ondoko herritxokoek iaz egin zutena. Nire familiako eskoriatzarrak lotsagarri uzten badituzte ez da nire errua! Egia esan, ez dut prestaketa lan handirik behar, egiak ez du-eta prestaketa beharrik!

Ahinara Ibarraundi: Justizia zuk? Bai, zera, ni noa justizia bila! Ez dut onartuko aretxabaletarren aldetik horrelakorik; beraz, gogor joango naiz epaiketara Eskoriatzaren izen ona defendatzeko.

Zein da, zehazki, akusazioa eta zeintzuk dira defentsarako dituzuen argumentuak?

R. Z.: laz testigu faltsuak eraman zituzten epaiketara, eta, duda barik, hori ez da horrela geldituko! Ikusiko dute eskoriatzar horiek! Goiena ere salatuko dut beharrezkoa izanez gero!

A. I.: Akusazio larria egin digute aretxabaletarrek. Testigu faltsua eraman genuela? Hori baino akusazio tontoagorik... Ez nator bat salaketarekin, noski! Eskoriatzak beti garbi jokutzen du-eta legearen aurrean.

Zelako lekuko edo pertsonaiak eramango dituzue?

R. Z.: Ez dut uste orain publikoki lekukoak nortzuk izango diren esateko unea denik, ez diot Eskoriatzako abokatuari abantaila txikiena ere eman nahi.

A. I.: laz ere lekukoetako bat izan zen Juan Iturbe eramango dut. Zaraia mendilerroa inork baino hobeto ezagutzen du hark, eta ea, behingoz, aretxabaletarrei dena argi gelditzen zaien.

Zerbait gehiago gaineratu gura baduzue...

R. Z.: Kurtzebarri Aretxabaletatik moduan ez da inondik ikusten! Gora, Aretxabaleta!

A. I.: Presta dezatela mukizapia ondoko herrikoek, beste behin, Eskoriatza garaile aterako delako eta burumakur joan behar izango dutelako bidegorritik bueltan etxera. [Barreak] Gizajoak!



Iñaki Agiriano

Eskoriatzako liburutegikoa

ANJEL LERTXUNDI

**ZU**

Egilea: Anjel Lertxundi

Argitaratzailea: Erein

2015/ 277 orrialde

Generoa: Narratiba

Liburu honen lorpen handienetakoa, 'Zu', zuk ezagutzen duzun minbizidun edozein izan daitekeela

Zergatik ni ez?

2012ko uztailaren hemeretziaren aldatu zen betiko liburu honetako protagonistaren bizitza. Protagonistak, idazle-narratzailearen emazteak, pankreako minbizia du. Uztaileko egun hartatik aurrera bikotearen bizitza zeharo aldatuko zen. Eta aldaketa honekin batera, idazlea bere lehenengo apunteak hartzen hasiko zen. Hasiera batean ohar-koadernoia zena, dietario hutsa, apurka-apurka gorputza hartzen hasiko da liburu-itxura hartuz: *Zu*.

Liburua eskuetan hartutakoan, lehenengo eta behin, bere azalak eman zidan atentzioa. Azala izugarri polita eta iradokitzailea iruditu zitzaidan. Liburua irakurri ahala, azalean erreparatuz, behin eta berriz, ikusi ditut minbizidun lagun eta familiakideak. Eta hau da, nire ustez, liburu honen lorpen handienetakoa, *Zu*, zuk ezagutzen duzun minbizidun edozein izan daitekeela.

Lehenengo zatian oso ondo azaltzen du pertsona batek diagnostikoa jasotzerakoan bizi ahal duen ifrentzua. Modu batera erreakzionatu edo beste batera, aldatu, bizitza beti aldatzen baita. Bukaera aldera, berriz, heriotzari buruz egiten dituen hausnarketak

primerakoak dira: “Heriotza saihestezina da, bai, ez daukagu eskapurik. Baina izandako bizitzak edertzen du, ezerk edertzekotan, heriotza”.

Nobelan zehar Lertxundik hainbat autoreren irakurketetatik ateratako aipuak sartzen ditu, besteak beste, Thomas Mannen *Mendi magikoan*, Albert Camusen *Izurritea* eta Susan Sontagen liburuetatik hartutakoak. Guztien protagonistak sufrimenduaren protagonistak izan ziren. *Zu* nobela ere sufrimenduaz ari da. Baina Inazio Mujikkak, Ereineko editoreak, dioen moduan, “ez da tristeia, ez da iluna, argia eta bizipozezkoa baizik. Nobelak bizitzaren artea, bizitzeko gogoa, sufrimenduaren erdian ere bizitza bilatzea aldarrikatzen du, eta ez etsipena”.

“Zu, beste bat gehiago da. Beste gaixo bat, beste minbizidun bat... Bere egoera eta historia partikularrak dira, transferitu ezin direnak... Bere eskarmentua ere partikularra da, ezin da transferitu, baina eskarmentudun bat gehiago da esperientzia berdintsua bizitzen ari diren milaka pertsonen artean. Minbizia dauka Zuk. Nork ez dauka edo ez du eduki minbizidun bat senideen, lagunen, hurbilenean artean?” ■



Trini Olabarria Mujika sastreriako arduraduna

“Sporteko erosketa guztietan deskontua egiten dugu txartelaz”

TESTUA ETA ARGAZKIAK: AMAIA TXINTXURRETA

Bergarako Mujika sastrerian %5eko deskontua egiten diete Goiena Klubeko bazkide direnei sporteko erosketa guztietan (eskaintza ez metagarria).

Noiztik egiten diezue deskontua dendan klubeko bazkide direnei?

Urtebete edo bagoaz eskaintza horrekin. Sport erako produktu guztietan %5eko deskontua egiten diegu txartelarekin etortzen direnei; bai gazteen arropetan, baita helduenean ere, eta hainbat marketako produktuak daukagu deskontua egiteko aproposak direnak.

Bezeroek badute ohiturarik txartela erabiltzeko?

Esango nuke oraindik ez daudela ohituta txartela erabiltzera. Guk leku ikusgarri batean daukagu euskarri bat jartzen duena zein deskontu egiten diegun Goiena Klubeko bazkideei, eta pixkanaka-pixkanaka bezeroak ari dira konturatzen hemen ere erabil dezaketela deskontuetarako. Baina gaur egun horrenbeste txartel izaten ditugu, askok txartela diru-zorroan ere ez dutela eramaten. Hala ere, aprobetxatzen dut esateko nahi duena konpromiso gabe etor daitekeela dendara eta erakutsiko diogula bertan daukagun eskaintza. ■



GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:

Deskontuak komertzioetan: Debagoieneko hainbat komertzioetan deskontuak.

Puntuak: Egubakoitzetan etxean jasoko duzu.

Deskontuak: Goienan jartzen dituzun iragarki sailkatu eta eskala guztietan.

Urteko kuota: 55 €

943 25 05 05 | kluba@goiena.eus | blogak.goiena.eus/goienakluba

goienakluba

Euskara irabazle, denok irabazle!

Aramaioko erlojua

Frantzisko Abaitua aretxabaletarrak egindako erlojua martxan egon zen 1868. urtetik 1991. urtera arte.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: MIREIA BIKUÑA



Aramaioko udaletxea erloju barik eraiki zuten. Orduko hartan, Sastiñan zegoen erlojuak markatzen zien ordua baserriarrei eta bizilagunei. XVI. mendeko agiri batzuek egiaztatzen dute Udalak ordaintzen zituela ordularia mantentzeko lanak. Erlojua Sastiñan zegoen, baina Udalaren jabetzako zen; ordulari-zaintzailea udal ordezkariak aukeratu zuten.

1961. urtean ermita zaharra kendu eta haren lekuan egun ezagutzen dena eraiki zuten, eta han ipini zuten Aramaioren zegoen erloju bakarra.

SASTIÑATIK UDALETXERA 1822. urtean, Ibarako eliza egiteko orduan, diru baliabide txikia zuen Udalak, eta dorrea botatzea erabaki zuten. Baina dorreak zituen material batzuk eliza berrian erabiltzea adostu zuten. Lan haiek egin ostean, Aramaioko herriko plaza zabalagoa eta argiagoa geratu zen. Sastiñako dorrearekin batera, ermitaren elizpea ere kendu egin zuten.

Lan horiek guztiak egin aurretik, lekuz aldatu behar zen erlojuari leku berria egin behar izan zioten. Leku altuan. Herriko erloju bakarra izanik, auzo guz-

tietan entzun behar zelako. Ingaruko lekurik garaiena udaletxea zenez, han egin zuten dorre txiki bat, ordulari berria ipintzeko.

BERTIKALA Lekuz aldatzearekin batera, erloju berria eskatu zion Aramaioko Udalak Frantzisko Abaitua erlojugileari, 1868. urtean. Dionisio Isasi zen orduko alkatea.

Abaitua jaiotzez aretxabaletarra zen, baina Gasteizen hazi zen. Eskarmentu handiko erlojugilea. 4.300 erreal kobratu zituen ordulari berriarengatik.

Abaituaren erlojua bertikala zen eta brontzezko erruberak zituen

Udal Artxiboan dagoen kontratuak dioenaren arabera, erlojua bertikala zen. Erruberak brontzezkoak zituen. Aurretik, Sastiñan egondako erlojuaren esfera eta makineria eraberritu eta berrerabili zituzten. Minutu-orratzak eta zenbakiak beltzez margotu zituzten eta esfera, zuriz.

Abaituak egindako erlojuak ordu erdiak eta ordu puntuak markatzen zituen, eta zortzi bat egunetan ordua puntuan emateko autonomia zuen. Denbora hori pasa ostean, berriro igo behar ziren pisuak, erlojuak beste zortzi eguneko autonomia izan zezan.

Era berean, Udal Artxiboko dokumentuak zehazten du 4.300





➤ Aramaioko erlojuaren pisuak, makineriako zati bat eta erloju berria egiteko sinatutako akordioa.

➤ Aramaioko Udala eta Sastiña. Argazkian ikusten den erloju elektrikoa da, eta 1991n ipini zuten martxan.



errealeko aurrekontua lau zatitan ordaindu ziola Udalak Abaituari.

DESMUNTATU 1868. urtean martxan jarri zen erloju-makineria 1991. urtean kendu zuten. Udaletxean lanak egin zituzten, eta erloju elektrikoa ipini. Egun dagoen ordularia, alegia.

Zaharra desmuntatu eta pieza guztiak hiltegi zaharrera eramane zituzten. Han egon zen urte askoan.

KUTXA BATEN 2011n hiltegi zaharra eraberritzea erabaki zuen Udalak. Aramaio Baserri Berri taldeari euren produktuak saltzeko eta trukatzeko lekua egokitu zioten lehen solairuan. Era berean, han kokatu zituzten Udal Artxiboa eta komun publikoa.

Lanak egiten hasi zirenean, han topatu zuten 1991n udaletxetik kendutako erlojuak. Eta zer egin zuten harekin? Bada, konpondu. Erretiratuta zegoen arrasatear batek eraberritu eta erabiltzeko moduan ipini zuen berriro ere, musu-truk.

Hiltegi zaharretik atera, eta kristalezko kutxa handi baten sartu zuten. Udaletxearen eta hiltegi zaharraren artean dagoen pasabidean dago ikusgai. Erloju-makinaren *tripak* ikus daitezke gertutik, eta baita Udalak eta Abaituak, erloju berria egiteko adostutako eta sinatutako dokumentua. ■

Slow Media

KOMUNIKAZIOA



Usoa Agirre

@uagirre

Aspaldion *slow* kontzeptuaren inguruan ikasten eta, ahal dudanean, hura praktikan jartzen ari naiz. *Slow Food* edo janari geldoa kontzeptua da, agian, ezagunena gure artean, baina filosofia berekin martxan jarri dira beste hainbat *slow* mugimendu ere: *Slow Cities*, *Slow Work*, *Slow Schooling*, *Slow Fashion* eta baita *Slow Media* ere.

Twitterren albiste bat ikusi, mugikorretik burua altxa eta begiratu, hausnartu... Zergatik sortu da arazo hori? Zer dago albiste horren atzean? Ariketa hori egiten duten hedabideak, kazetariak eta medioak atsegin ditut, bereziki. Albiste asko kontsumituta ez gara inoiz mundua hobeto ulertzera iritsiko; ingurukoak ulertzeko ere nahikoa lan izango dugu.

'Slow Food'-en bezala, hedabide *geldo* edo *Slow Media* ere ez dira kontsumo azkarrean oinarritzen. Osagaiak ondo aukeratzen



dituzte eta mimoz prestatzen dituzte albiste eta erreportajeak. Nik orain deskubritu badut ere, 2010ean argitaratu zuten *Slow Media* Manifestua Benedikt Köhler, Sabria David eta Jörg Blumtritt alemaniarrek. Hemen, manifestuaren 14 puntuak:

1. Slow Mediak

jasangarritasunean laguntzen du.

2. Slow Media **zentzumen** gutziekin kontsumitu behar da.

3. Medio *geldoek* **perfekzioa** nahi dute: erabiltzaileendako hobetzen dituzte interfazeak.

4. **Kalitatea igarri** egiten da: interfaze zaindua, diseinu inspiratzailea...

5. **Aktiboki** kontsumitu nahi dutena aukeratzen duten kontsumitzaileak pizten dituzte.

6. **Elkarrizketa** bultzatzen dute.

7. *Slow Media* komunikabide **sozialak** dira.

8. **Erabiltzaileak** **errespetatzen** dituzte.

9. **Gomendio** bidez zabaltzen dira, eta ez publizitate bidez.

10. **Atenporalak** dira: bitzta luzea izan ohi dute eta ez dute kalitatea galtzen.

11. **Aureola** berezia barreiatzen dute, irakurlearendako eskusibotasun zentzua emanez.

12. **Aurrerakoiak** dira, ez erreakzionarioak. Ez dute hedabide *azkarren* (Twitter, sare sozialak) kontrapisu izan nahi, horiek erabiltzeko modu bat baizik.

13. *Slow Media* **kalitatean oinarritzen** dira: bai edukiak emateko orduan, baita informazio-iturriak aukeratzeko ere.

14. Hedabide *geldoek* **konfiantza** eskatzen dute eta denbora behar dute sinesgarriak izateko.

Zorionez, euskaraz ere baditugu *Slow Media* aukera ugari, patxadaz eduki interesgarriak irakurtzeko, ikusteko eta entzuteko hedabideak. Aldizkari hauxe dugu horietako bat.



Jon Berezibar

jberezibar@goiena.eus



NETATMO NSW01-EC

Estazio meteorologikoa | Netatmo | 154,20 euro

Ingurumen eta eguraldi neurketak egiten dituen etxerako estazioa da; dagokion aplikazioarekin, jarraipenak egin eta erregistroak neurtzeko. Neurtzen ditu hezetasuna, tenperatura, presio barometrikoa eta CO2 metaketa; alarmak ezarri daitezke eta eguraldiaren iragarpena egiten du. Nahi izanez gero, banatuta erosten den plubiometroarekin (66 euro), prezipitazioen neurketak ere egin daitezke.

AUGUST

Txanoa | August | 29,95 euro

Txanoan bertan aurikularrak, mikrofonoa eta kontrolerako botoiak ditu. Bluetooth bidez konektatzen da mugikorrarekin, eta kable bidez kargatzen den bateria dauka. Argazkikoaz gain, sarean teknologia bereko hamaika modelo aurki daitezke, askotariko prezioekin, txanoaren materialaren arabera, guztiak termikoak. Kontrolerako panela ezker aurikularrean kokatzen da.



PRYNT

Inprimagailua | Prynt | 149 euro

Polaroid ezagunen erara, argazkia mugikorrarekin atera eta eskuan kabitzen den gailutxoak unean bertan inprimatzen du irudia. Zink paper fotografikoa erabiltzen du inprimagailuak, tinta barik, beroa erabiliaz. Gailuari lotutako aplikazioarekin editatu egin daiteke irudia eta errealtate areagotuko ezaugarriak erantsi (musika, geolokalizazioa...). iPhone eta Samsung Galaxyrekin erabil daiteke.



Errezetaren egilea: Maddi Artzamendi | @maddiarz |

Gabonetako gailetak



Osagaiak

Azukre beltza, 100 g

Eztia, 75 g

Irina, 400 g (eta apur bat gehiago oratzeko)

Gurina (giro tenperaturan), 200 g

Arrautza txiki bat

Jengibre-hautsa, koilaratxokada bat

Intxaur muskatu hautsa, koilaratxokada bat

Jamaikako piperbeltza (edo piperbeltz beltza edo piperbeltz larrosa), koilaratxokada bat

Kanela, bi koilarakadaxo

Prestaketa

1. OSAGAIK PRESTATU

Atera gurina hozkailutik, gutxienez, bi ordu lehenago. Espezieek ematen diete gailleta hauei ukitu benetan berezia. Kanela eta intxaur muskatua ezagunak ditugu gurean; jengibre-hautsa eta Jamaikako piperbeltza beste herrialde batzuetako sukaldaritzan askotan erabiltzen dira; jengibre-hautsa erraz aurkitzen da; Jamaikako piperbeltza ez horrenbeste. Beraz, aurkitu ezean, piperbeltz larrosa edo piperbeltz beltza erabil daiteke.

2. OSAGAIK NAHASTU

Irabiagailu bat edo sukaldeko robot bat erabili osagaiak errazago nahasteko. Nahastu azukre beltza eta espezieak, gehitu gurina eta irabiatu guztia integratuta egon arte. Gehitu eztia eta arrautza, pasta homogeneo bat dugunean gehitu

irina bi zatitan eta jarraitu irabiatzen. Atera masa irineztatutako mahai gainera, irin apur bat gehiago gehitu eta eskuz oratu.

3. HOZKAILURA ETA FORMA EMAN

Luzatu arrabolaz eta utzi zentimetro bateko lodieran. Sartu hozkailura eta ordu erdiz hozten utzi. Denbora pasatakoan atera eta arrabolarekin zentimetro erdiko lodiera eman. Formadun moldeekin gailetak moztu. Labea piztu 180 graduan.

4. LABEKATU

Gailetak labeko erretiluan jarri eta aurrez berotutako labean sartu, labekatu 10 minutuz; denbora hori pasata, jaitsi labeko tenperatura 150 gradura eta beste 10 minutuz utzi. Atera gailetak eta utzi hozten. Nahizanez gero, dekoratu: txokolatea edo glasatu erreala erabilia.



Laia Zuazubiskar Pando

Aretxabaleta. 3,400 Kilo.

Gurasoak: Virginia eta Lordi. Argazkian, Laia, amaren besoetan.



Jaio da!

Eman jaiotzen berri PUNTUAN eta Interneten.

Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz Goienaren egoitzara.

Asteleheneko 11:00ak arte jasotako jaiotzak argitaratuko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

Gabon hauetarako OPARI EZIN HOBEA

www.multiopicasgipuzkoa.com

Gure betaurreko
guztiak bilduma
berrietakoak dira



EGUZKITAKO
BETAURREKOAK

% **30**

MODELO BERRIAK
2016

des
kon
tua

RALPH
WOLFF DIAMOND EYEWEAR

Ray-Ban

OAKLEY

arnette
SPORTSWEAR

eta askoz gehiago...

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA • LASARTE • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

J. Carlos Guerra, 1
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan